



Maika ARIZTEGI

Lokotx biltzen Euskal Herriko Txapelduna hamaikagarren aldiz

→ 45

2011ko urriaren 27a | XXXI. urtea | 553. zenbakia

www.ttipi.net

Omi-saindu Eguna

Gehigarri berezia → 11-14

BERA → 17

Larunera mendi bizikleta igoera urriaren 30ean

DONEZTEBE → 22

Ernadi rock besta azaroaren 5ean

LEITZA → 32

Igerilekuko ura berotzeko eguzki plakak

SARA → 43

Oroitzapenetik Bidaiarat azaroaren 12an



Arano, Donamaria, Elgorriaga, Ituren eta Urrozen udalak ere hautatuko dituzte azaroaren 20an

Beintza-Labaien eta Bertizaranako kontzejuetan (Legasa, Narbarte eta Oieregi) ordea, ez da bigarren txanda honetara ere talderik aurkeztu eta, hartara, Nafarroako Gobernuak udal edo kontzeju berria izendatu artean, gaur egun dauden hautetsiek segitu beharko dute karguan.

→ 29

Bertizarana eta Malerreka-ko eskola ttiki-ien topaketa

SUNBILLA urriak 28 ortzirala

SUNBILLA → 23



Beintza-Labaien, Ituren, Legasa, Narbarte, Saldias eta Sunbillako eskolek 09:00etan dute hitzordua Sunbillako frontoian eta egun osorako ikuskizunak dituzte prestatuak

ERREPORTAJEA → 4-5

«Ongi dago alfabetatzea baina ez dago nire lehentasunen artean»

Ondorio hortara iritsi dira Aztiker Ikerketa Taldeak Nafarroako Mendialdeko Euskara Zerbitzuentzat egindako ikerketan. Argazkian Eli Astiasaran, *Aztikerekoa*.



Jasone MITXELTORENA | Auzolan egitasmokoa

«Auzolanak herri gisa bizirauteko balio izan digu eta orain ere balio dezake»

Usurbilen egindako Euskal Herriko I. Auzolan Topaketan aurkeztu du *Auzolanaren kultura* idatzi berri duen liburua → 3



ZOKKETAK → 40



Txartela egiteko deitu 948 63 54 58ra

Birziklatu

Ontziek bizitza luzea dute



Kartoiako ontziak, papera,
egunkariak, aldizkariak.



Plastikozko ontziak,
latak, brikak.



Beirazko botilak,
flaskoak, poteak.

Birziklatu

Uste ez baduzu ere, birziklatzeari esker ontziek bizitza luzea dute. Baiiteke zure seme-alaben bizikletan eraldatuta aurkitzea, zure jantzi polar kuttunean, irakuriko duzun hurrengo liburuan edota ureztatzi batean... Zeren, manera batera edo bertzera, birziklatzeak bizitza dakar. Eta zure laguntzarekin, denok zainduko dugu gure ingurumena.



Gaur egungo gizarte ereduak sortzen dien ezinegon tarteko, orain dela urte eta erdi abiatu zen Auzolan egitasmoa, auzolanaren bidez bertzelako gizarte eredu sortzea posi-

ble dela pentsatuz. Egitasmotik sortu den lehenbiziko ekimena Usurbilen egindako Euskal Herriko I. Auzolan Topaketak izan dira, Euskal Herriko 72 herritatik joandako 200

bat lagun elkartu dituztenak. Egitasmo honetako partaidea da Jasone Mitxelorena etxalartarra eta berak egindakoa da *Auzolanaren kultura* liburua, topaketa horietan aurkeztua.

Jasone MITXELTORENA | Auzolan egitasmoko partaidea

«Auzolanak herri gisa bizirauteko balio izan digu eta orain ere balio dezake»

G. PIKABEA | ETXALAR

Nolatan sortu zen Auzolan egitasmoa?

Duela urte eta erdi sortu zen eta tarte honetan hausnarketa prozesu bat egin dugu. Helburua bertzelako gizarte eredu bat eratzeko dinamika sustatu edo abiatzea izan da. Asmo horrekin lehenbiziko ekintza Usurbilen egin ziren Euskal Herriko I. Auzolan Topaketak izan dira. Topaketa horietan, batetik, egungo egoerari buruz solastu nahi izan genuen: krisiari buruz, ez dela ekonomia edo arlo jakin bateko krisia aipatu zen, baizik eta sistema osoari eragiten diola eta aldaketa eskatzen duela. Alde horretatik, interesgarria iruditzen zaigu herri garapenaren bidea, dinamika tokian tokikoak izatea eta herritarrak izatea parte hartzaileak gure bizimodua eta gizartea antolatzeke. Kataluniako kooperatiba integralaz ere aritu ginen, beharrei kolektiboki erantzuteko antolatzen ari baitira. Bigarren egunean, gizarteko gaiak arloka lantzeko lantaldeak egin genituen. Dagoeneko lanean dauden Euskal Herriko eragile edo pertsonak bildu, taldean gogoe-ta egin eta zer egin daitekeen ikusteko. Orain sare moduko bat eratu nahi genuke lanean ari diren eragileekin harremanak izateko eta espe-rientzia berriak sortu na-



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

Jasone Mitxelorena berak idatzi duen *Auzolanaren kultura* liburua eskuetan duela.

hi izanez gero, erreferentzia bat izateko. Bertetik, Euskal Herrian historikoki izan den erakunde bati buruz ere solastu ginen: batzarrak. Begirada historikoa egiteaz gain, batzarrak zein leku izaneren lukeen gure gizarte eredu honetan eztabaidatu zen. Krisia orokorra da eta alternatibak behar dira, eta garrantzitsua izan daiteke batzarra. Azkenik, *Auzolanaren kultura* liburua aurkeztu genuen. **Batzarrak zein aukera eskaini ditzake?**

Bere garaian batzarrak zituen gaur egungo Udalen funtzioak. Etxe bar-koitzeko ordezkari batek

AUZOLANA

«Erronka berriak dira, eta garai berriak, baina guk sutrietan bilatzen dugu. Ez dugu deus berriak sortu nahi, mendez mende balio izan digun zerbait orain ere baliagarri izan daitekeela uste dugu, egungo beharretara egokituz».

INFORMAZIO GEHIAGO

Informazio gehiagorako, Auzolan egitasmoko web orria eta helbidea eskura ditu: www.auzolan.info eta auzolan@riseup.net.

parte hartzen zuen eta herriko kontuak kudeatzeko erabakiak hartzen ziren. XVIII. mendean, ordea, ahalmenik haundiena zutenekin osatzen ziren batzarrak. Eta gero udalaren irudia gelditu zaigu, eta bere gainetik gobernua eta estatua. Historikoki herriek autonomia handia izan dute, baina botere hori urruntzen joan da eta gauregun estatuen menpe gaude. Bilakaera ez da egun batetik bertara eman eta batzaren bidez beriz funtzionatzeko lan handia egin beharko litzateke. Menpekotasun egoera honetan ongi egon gara

urte aunitzez, baina ematen du egoera gero eta kritikagoa dela eta beharrezkoa izanen dela bertzelako dinamika egitea. **Auzolanaren kultura** liburuan zer aurkituko dugu?

Batetik, ohiturazko auzolanari buruz solastu gara, zer izan den azalduz. Bertze egileek auzolanari buruz errandakoak, zuzeneko lekukotasunak eta gaur egun ohiturazko auzolan hori zein modutan ageri den jaso dugu. Horrekin batera, auzolanaren aritzen zen herriaren antolakuntza nolakoa zen ere aztertu dugu, historialariek elkarriketaz eginez, liburuak irakurritz... Auzolanaren gainbehera ere aipatu dugu eta kultura aldetik pintzelkadak ematen saiatu gara, auzolanerako balio batzuk garrantzitsuak direlako: elkartasuna, berdintasuna, errespetua, talde izaeraren kontzientzia... Auzolanak herri gisa erronka berriei erantzun eta bizirauteko balio izan digu historikoki, eta gauregun ere balio dezake.

Hemendik aitzinera zer?

Egitasmoa eta liburua zabaldu nahi ditugu. Erronka berriak dira, eta garai berriak. Baina guk sutrietan bilatzen dugu. Ez dugu deus berriak sortu nahi, mendez mende balio izan digun zerbait orain ere baliagarri izan daitekeela uste dugu, egungo beharretara moldatuz.

IKERKETA → NAFARROAKO MENDIALDIAN EGIN DU IKERKETA AZTIKERREK

Euskaraz alfabetatzeari balorea ematen zaio baina ez da lehentasun gisara hartzen

Kontzientziazio lanaren beharra somatzen dute ikerketan parte hartu duten herritarrek

Euskararen eta zehazki alfabetatze prozesuaren gainean dauden diskurtso, motibazio eta esperientzia ezberdinak mahai gaineratzea eta Euskara Zerbitzuen egitasmo eta esku-hartzeak gidatzeko informazio

baliagarria eskuratzeko helburuarekin Baztan, Bortziriak, Larraun, Leitzaldea, Malerreka eta Ultzama aldean ikerketa egin du Aztiker Ikerguneak, gure inguruko Euskara Zerbitzuek hala eskatuta.

Aitor AROTZENA

24 herritarrek parte hartu dute Baztango, Bortzirietako, Larraungo, Arano, Areso, Goizueta eta Leitzako, Malerrekako eta Ultzamaldekoko Euskara Zerbitzuen eskutik Aztikerrek egindako ikerketan: 12 emakumek eta 12 gizonak. Hiru elkarrizketa sakon egin dira, Bortzirietan alfabetatu batekin, Larraunen alfabetatu gabeko batekin eta Leitzan alfabetatze bidean ari den batekin. Lau eztabaida talde ere egin dituzte, Bortzirietan, Larraunen eta Malerrekako bana alfabetatu gabeekin eta Bortzirietan bertze bat alfabetatze bidean direnekin eta alfabetatuekin.

Ikerketak informazio ugari eta aberatsa eskaini du eta ondorio batzuk ateratzen ahal dira.

ALFABETATZEAREN BALOREA

Alfabetatzeari (irakurrian eta idatzian euskaraz ongi eta eroso arizteari) balorea ematen diote elkarrizketatuek (ez dugu diskurtso ezaxola edo gutxieslerik aditu). Bertzerik da horretarako premia duenak euskara maila hobetzeko euskaltegian izena emateko erabakia hartzea.

Parte hartzaileen iritziz, euskara ikasi edo alfabetatu beharrean

herritar aunitz dago (haiek eta beren ingurukoak tartean). Hortik ondorioztatzen da herritar horiengana ailegatzeko ahalegina egitea dago-kigula (normalizazio lanetan aritzen garen eragileoi), irakurrian eta idatzian euren euskara maila hobetuko badute.

Euskara ikastea (irakurri eta idatzi) eta hiz-



ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

Euskaltegiaren matrikulazio kanpainaren barrenean, Bortzirietako gurasoek ipuina irakurri zuten Lesakan.

kuntza ohiturak aldatzea (gaztelaniatik euskarara) posible da: parte hartzaileen esperientziak hori egiaztatzen du.

IRAKURRI ETA IDAZTEKO OHITURA

Orokorrean ohitura gutxi dute parte hartzaileek euskaraz irakurri eta idazteko. Alde horretatik, aunitzek gorai-

patzen dute TTIPI-TTAPAK euskara ulerterranean egiten duen lana.

EUSKARAZ ALFABETATUA EGOTEAREN ONURAK

Euskaraz irakurtzen eta idazten moldatzen ez direnek askatasun edo autonomia falta nabaritzen dute hiztun bezala hainbat arlotan moldatzeko.

Alfabetatzea eta euska-

ELI ASTIASARAN, AZTIKER IKERKETA TALDEKOA



Eli Astiasaran.

«Euskaltegien lana ez da ezagutzen»

• **Alfabetatzea ongi dago, baina ez premiazkoa. Hori litzateke ikerketaren ondorio nagusia?**

Diskurtso guztiak alfabetatzearen aldekoak dira, baina zalantzatan jartzen dute beharrezkoa ote den. "Ongi etorriko litzaidake alfabetatzea, baina ez dago nere lehentasunen artean", horrela laburbiltzen ahal da iritzi orokorra.

• **Alfabetatzearen inguruko pertzepzioa aldatzen da, elkarrizketatua bera alfabetatua, alfabetatze bidean edo alfabetatu gabea izan?**

Ez da ezberdintasun argirik somatzen. Ezin da esan alfabetatuek dis-

kurtso positiboagoa dutenik alfabetatu gabeek baino. Hori pertsonalagoa da, norberak euskararekin duen konpromisoaren araberrakoa.

• **Elkarrizketatuek aipatzen duten kontzientziazio lana nola gauzatu beharko litzateke?**

Hori da aipatzen duten gauza bat, bere buruari autokritika pixka bat eginez, baina nola egin... hori oso zaila da, "jakinen bagenu ez ginake hemen horrela egongo" diote. Inguru horretan, euskaltegien funtzioa ere gehiago lotzen da euskara ikastearekin alfabetatzearekin baino. Ez dakite zenbat talde dauden, zertan ari diren...



ra maila hobetzea hainbat gauzatarako da beharrezkoa (zenbait lanpostutarako, hainbat dokumentu ulertzeko, euskaraz irakurtzeko eta idazteko gai izateko...) edo gutxienez onuragarria. Gurasoek seme-alabei laguntzeko (bertzeak bertze, eskolako zereginetan) ezinbertzekoa dela azpimarratu dute hainbat parte hartzailek. Alfabetatu zirenek arrazoi hauek eman dituzte prozesua burura eramateko: lana edo titulua lortzea, seme-alabei laguntzea, euskalkiaz gehiago jakitea, eta jokoz kanpo ez gelditzea.

Alfabetatu direnek edo orain bide horretan ari direnek, orokorrean, aurreikuspenak bete dituzte (edo betetzen ari dira): lana edo titulua lortzea, irakurketa eta idazketa hobetzea, eta semealabei modu egoki laguntzea.

Alfabetatze prozesua burutu dutenek bertze onura batzuk ere aipa-

EUSKALTEGIAK

«Gaur egun gehiago lotzen dira euskara ikastearekin alfabetatzearekin baino. Konziente dira taldeak osatzeko arazoekin dabilzala, baina bada euskaltegien gaineko ezjakintasuna ere. Ez dakite zertan dabilzan, zenbat talde dauden...»

Eli ASTIASARAN

Aztiker Ikerketa Taldekoa

tu dituzte, irakurri eta idazteko gai izateaz gain: euskara batua ikasi eta ulertzea (bertze herrialdeetako euskaldunekin elkar ulertzea) eta euskalkian eta bertako hiztegien sakontzea.

KONTZIENZIAZIO LANAREN BEHARRA

Nolanahi ere, bada etsipen puntu bat elkarriketatuen mintzozan, izan ere, alfabetatzearen kontrako diskursorik ez badago ere,

ANGEL URTXEGI, EUSKARAZ ALFABETATU GABEA

«Seme-alabei etxeko lanetan laguntzeko komeni da euskara idatzia ongi menperatzea»

Angel Urtxegi igantziarrak ikerketako eztabaida talde batean parte hartu zuen. Ikasketak gazteleraz egin zituen eta ez da euskaraz alfabetatu, «gaur egun horretarako denborarik» ez duelako. Arantzako Herriko Etxeko langilea da eta Igantziko zinegotzia, hiru seme-alaben aita.

Bilera bat egin zuten Beran eta alfabetatzearen inguruko iritziak bildu zituzten. «Gure kasuan, gehienok ama-hizkuntza euskara genuen, baina eskolan gazteleraz ikasitakoak ginen, alfabetatu gabeak».

Ikerketaren ondorio nagusiarekin, alfabetatzeak balio duela baina ez dela lehentasuntzat jotzen, alegia, ados dago Urtxegi. «Hori izan zen eztabaida taldean atera genuen ondorio nagusietako bat –dio–. Bertze ondorioetako bat zen ez zaigula begietatik sartzan alfabetatzearen premia hori, kartelen bidez ez da ailegatzen eta bertze zerbait zuzenagoa egin beharko litzateke, baina ez dakit zuzen zer». Bera langile publikoa izanik, Urtxegik badaki egokia litzatekeela alfabetatzea eta alde horretatik, «lankide batzuk ari dira Lesakako euskaltegian, albinteentzako eta udal langileen dako alfabetatze ikastaroetan, nik ez dut parte hartu, momentuan ez dudalako denborarik. Zaila izaten da horretarako astia hartzea. Baina ongi etortzen da beti».

Kontzientiazio lanaren garrantziaz ere aritu ziren, «jendeak garbi edukitzea zertarako alfabetatu behar den eta helburua zein den garbi agertzea: denok euskaraz solasteko eta bizi-



Angel Urtxegi

tzeko gai izatea». Seme-alabekin jolasteak eta etxeko lanetan laguntzeko ere bultzatzen du alfabetatzerako orduan. «Orain dena euskaraz ikasten dute eta, etxeko lanetan lagundu nahi baduzu, komeni da euskara idatzia ongi menperatzea». Hala ere, Angel Urtxegik onartzen du ez duela euskaraz irakurtzeko eta idazteko oihutara handiegirik: «Haurrentzako ipuinak irakurtzen ditut, baina TTIPI-TTAPA edo Berria ere, baina libururik ez, ez euskaraz ezta gazteleraz ere. Irakurtzeko orduan beti gehiago tiratzen dut erdarara, errazagoa egiten zait. Saiaitu egiten naiz, baina eskolan erdaraz ikasi genuenez...».

Euskaltegiak egiten duen lana baloratzen ez da ausartzen igantziarra, «ez dudalako sobera ezagutzen».

agerikoa da sozialki ez dela lehentasuntzat jotzen. Hortaz, kontzientiazio lanaren beharra sumatzen dute, eta horretan eragin beharra dute baikorki Euskara normalizazioan ari diren eragileek.

HOBETZEKO PROPOSAMENAK

Euskaraz berbitzuek herritarren sentsibilizazioarako egiten duten la-

nari buruzko iritzia galdetuta, oro har ez dituzte sobera ezagutzen egiten diren kanpainak eta gisakoak. Azken urteotan egindako kanpainak erakutsi zaizkienen, horiek hobetzeko proposamenak eta kontuan hartzeko oharrak egin dituzte, hurrengo urteotako esku hartzeetan euskara zerbitzuek presente izateko.

Modu berean, euskaltegien funtzio sozialari ikaragarriko garrantzia eman diote. Hortik abiatuta, euren eskaintza herritarren beharretara egokitzeko proposamenak eta kontuan hartzeko oharrak egin dituzte, euskararen irakaskuntzaz arduratzen diren eragileek euren eskaintza hobetzeko baliagarriak izatean ahal direnak.



Nire txanda
Koro IRAZOKI

Aitak dio dirua eskastu dela

Aitak dio familiako dirua eskastu dela eta moztu behar ditugula gastuak. Aitaxi-ama-
txikirekin hasi da: medikutan aunitz gasta-
tzen dutela, eta gaizki sentituta ere, izorradil! On-
dotik guri lotu zaigu: neri eskolarat oinez ganen
naizela, eta anai tikiak ez duela zergatik haurtzain-
degirat ganbeharrik, amatxi ederki aski zaindu-
ko duela! Gero amari tokatu zaio: ginekologoaren
errebisioa luxu bat dela eta fuera hori ere. Kale-
fakzioa zertarako, aski dugu-
la arropa gehiago ematea. So-
bera jaten omen dugu, beraz,
afaltzeko baso bat esne. La-
badora ere soberan dago, es-
kuz ederki garbitzen omen di-
re arropak. Dutxatzeko, ur ho-
tza... Aldiz, aita gimnasia-
gatea behar-beharrezko omen da, bere tabako pa-
ketea ere bai. Auto berri potente bat behar omen
du; eta koadrilakrein egiten duen afaria ezinber-
tzekoa omen da... En fin, nere aitak *gubernua* du
izena, eta nere familiak *gizartea*. Horrela hobeki
konprenituko duzue egoera hau, ezta hala?

«Nere aitak
gubernua du
izena eta nere
familiak
gizartea»

Ezpala

Aitor AROTZENA

Irabazleak eta galtzaileak

Irabazleak eta galtzaileak nahitaez behar direla
erraten dute, beti bere zelaian eta epailea alde
dutela jolastera ohituta daudenek. Nazioarteko
arbitroa datorrenean, arauak ez dituela ezagutzen
diote, jokoz kanpo gelditzerakoan. Ez dute onartzen
sailkapen zuloan gaudenentzat berdinketa ere
garaipena izan daitekeela. Baita galtzea ere, itxu-
ra ona eman eta arerioa estutzea lortzen bada.

Nabarmentzekoak



Maika ARIZTEGI
Hamaika aldiz txapel-
dun

2000.ean irabazi zuen
Euskal Herriko koxkor
biltze txapelketa lehen
aldiz eta urriaren 9an
lortu zuen hamekaga-
rrena. 2004an huts egin
zuen, Aizarnazabal
topatu ez zuelako.



Arkaitz UNTXALO
Iturengo pilotaria

Nafarroako gazte
mailako buruz buruko
txapelketa irabazi du
Txarutako pilotariak.
Urriaren 12an Labriten
jokatutako finalean 18-
9 irabazi zion San
Miguelko Garaioi.



Alex MUGIKA
Leitzako sukaldaria

Iruñeko Gazteluleku
Elkartearen Nafarroako
Kaxula eta Ardoaren X.
Astearen barrenean
egindako kaxula lehia-
keta irabazi zuen urri-
aren 18an, tripaki eta
onddo Fideuárekin.

Atzera begira → 2001.11.01 / TTIPI-TTAPA 313. zbk



Urdazubiko bibiroek 95 urte bete zituzten

Duela hamar urte, 95 urte bete zituzten Urdazubiko Juanikotenea baserriko bi-
biroek eta bere bizipenak kontatu zituzten TTIPI-TTAPAN. Bitxikeria gisara, bi-
biroak izanagatik, urriaren 27an eta 28an ospatu zuten urtebetetzeak, 18 or-
duko diferentziarekin sortu zirelako. Nekazaritzan eta kontrabandoan arituak
ziren biak. «Nahiago nuke 20 urte izan laborantzaz aritzeko. Lan hori sana da»
zioen Luzianok. «Gure denboran ni ibili naiz anitz, gau ta egun. Guardiak bazi-
ren bideetan, baina gu mendiz altxapeka Elizondoraino gaten ginen» gogora-
tzen zituen kontrabando garaia Nartzisok.



Argitaratzailea Ttipi-Ttapa Fundazioa • **Egoitza** Anduettzeta, 12 • 31760 ETXALAR

Tel. (+34) 948 63 54 58 • Faxe (+34) 948 63 54 57 • info@ttipi.net

Zuzendaria Aitor Arotzena **Erredaktore burua** Gurutze Pikabea **Publizitatea** Usoa Vicente, Kulturkari SLU **Berriemakileak** Esteban Arotzena, Juana Mari Sai-
zar, Kontxi Klaber, Ainhoa, Arantxa eta Maider Ansa, Asier Imaz, Arkaitz Mingegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Iratzoki, Nerea Aitzuri, Joseba Urrotz, Iru-
ne eta Itsaso Elizagoien, Maite Oteiza, Maider Petrirena, Markel Lizasoain, Eneko Mitxeo, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Iñaki Telletxea, Joana Guereniain...

Fundazioaren Presidentea Pello Apezetxea **Kudeatzailea** Joxemanuel Irigoien **Administrazioa** Amaia Goia

Lege Gordailua NA-1324/85 • **ISSN** 1578-4673 • **Tirada** 6.000 ale

Erakunde laguntzaileak Etxalar, Leizta, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarteak, Bortzirietako Euskara
Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea

2011ko harpidetza sariak

Hego Euskal Herria37€	Europa55€	Baztan, Urdazubi eta Malerreka31€
Ipar Euskal Herria55€	Amerika eta Australia123€	Leizta15€



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria



Euskarabideak
diruz lagundutako aldizkaria



Kolaborazioak

Gure mendien bakartasuna

Pello APEZETXEA

Gure mendiak bakarrik gelditzen ari direla er-
rran nahi dut, bai. Gureak erratean, gure
hurbilekoak ditut gogoan, batez ere; TTI-
PI-TTAPAK bisita egiten dion eremuko mendiak.
Zer gertatzen ari zaie, bada? galdetuko du bere-
hala irakurle batek baino gehiagok. Izan ere, be-
har bada, ez dugu inoiz erabiltzen bakartasuna so-
las hori, jendeari dagokionez ez bada, eta jende
bizidunari. Edota ia inoiz. Zenbaitek buruan izan-
en baititu Machado poetaren harako solas hai-
ek: “Bai bakarrik gelditzen direla hildakoak”. Bai-
na, zer? Hildakoak elkarrekin egoten direla erra-
ten ahal da, bakarrik gelditzen direla ere errateko?

Galdemodu beretsua
egin daiteke mendiei bu-
ruz, mendiak elkarrekin
bizitzea ulertzen ahal da,
gero euren bakartasu-
naz mintzatzeko?.

Nire burutazioak azal-
tzen saiatuko naiz. Gu-
re mendietan hainbat
herritarbizi da, eta men-
diarekin elkartasunean
gainera, baina harreman
hori gaur den egunean
aunitz ttikitu da. Herritar
aunitzi, baserritarrari, ge-
hien bat, mendiak ema-
ten zion bazka, su egu-
rra, fruitua, itzala, etxea
zaintzeko eta zaharber-
ritzeko zura, etabar. He-
rritarra mendian ibiltzen
zen, mendia zaindu, be-
lategiak goroztu, arbola
bota baina berria landa-
tu ere bai. Elkar ikusi, el-
karri lagundu, elkarrekin
bizi. Egun, berriz, bertze
lanbideak hartu ditu jen-
deak, ia-ia ez du belategien beharrik, ezta irale-
kuenik ere, aziendak ere utzi baititu.

Eta ibili? Dagoeneko ez du mendian ibili beharrik.
Autoa hartu eta karrikara edo bertze hainbat toki-
tara da bere ibilera. Ez dio oihanari bisitarik egi-
ten, gero eta gutiago belategi eta iralekuari. Eta
hauek desagertzen doaz, eta sasia nagusitzen
hainbat lekutan. Mendiari, gehienez ere, denbora-
pasako ikustaldiak egiten zaizkio, arin-arineko ibi-
laldiak eta ikustaldiak. Ikusi bai, baina lehengo el-
karrenganako hartu eta emaneko jarrerarik gabe.
Bizimodua aldatu da. Lehen beharrezko zuen jen-
deak mendia, eguneroko bizia plantatzeko. Gaur
den egunean, gehienentzat ez da beharrezko men-
dia. Eta ez gaitu mendiak gu behar, batere ez?

«Mendiari,
gehienez ere,
denborapasako
ikustaldiak egiten
zaizkio, arin-
arineko ibilaldiak
eta ikustaldiak.
Ikusi bai, baina
lehengo
elkarrenganako
hartu eta emaneko
jarrerarik gabe.
Bizimodua aldatu
da. Lehen
beharrezko zuen
jendeak mendia,
eguneroko bizia
plantatzeko. Gaur
den egunean,
gehienez ere ez da
beharrezkoa»

Sagarra “manzana” ote?

Joseba URKIOLA

Steve eta Jobs. Izen eta abizen hauek ezagun egin
dira azken asteetan. Batzuentzat jainko, beste-
entzat artista original. Teknologia Berrien unibert-
soa hainbat aldiz irauli duen sortzaile eta ikertzaile ase-
zina zen bera.

Baina Globalizazioak inoiz baino indar handiagoa izana-
gatik, Australia gure etxetik gero eta gertuago egona-
gatik, agur esan duenean ezagutu dute askok. Hori jen-
de dezenterekin pasa ohi zaigu. Egunkarian eskelan iku-
sitakoan, orduan konturatzen gara zenbat balio zuen au-
zokoak. Bizi zenean kasurik ez ia; betiereko agur esan-
dakoan gorespenak eta laudorioak harrapazka. Steve
Jobs zein zen ez dakienarentzat esango dugu, bera ze-
la hozkatutako sagar bat saldu zezakeen bakarretakoa.
Tableta, txokolategia ez ezik informatikoa ere gozo izan
daitekeela argi utzi zuen.

Hozkatutako hainbeste sagar saltzea krisi garaian, bi-
txikeria eta meritua da. Baina ez da bakarra. Azken al-
di honetan, harridura sorrazteko moduko gauza de-
zente gertatu dira. “Riesgoren lehengusina” ezezagu-
nagatik ote? Edo diruaren txin-txin hotsa isiltzen ari de-
lako? Auskalo. Baina kontua da Bakearen Nobel Saria
emakumeei eman zaiela urte mordoska baten ondoren.
Kostata; inoiz ez omen da berandu, eta aurten, Ellen
Johnson Sirleif, Leymah Gbowee eta Tawakul Kerman
izan dira sarituak. Liberiakoak lehen biak, Yemengoa
azkena. Nola aldatzen diren gauzak bi urtean. 2009an
George W. Bush zen sari hau jasotzeko hautagai (Ba-
rack Obamak irabazi zuen). 1901ean argia ikusi zuen
Bakearen Nobel Sariak eta gaur arte, bederatzik emaku-
meri eman zaie garaikurra. Aurten hamargarrena. Ea ba-
lantza orekatzen joaten den hurrengo urteetan.

Steve Jobsekin asko aldatu ziren sagarrak. Beste di-
mentsio batekoak dira orain. Suediako akademiakoek
“muje” andrea izatea nahi izan dute aurten. Eta bai ika-
tza, baita “karbon” ere, askori eman diezaiokegu. Irail
erdian, Palestinak bere nortasuna eta burujabetza berres-
kura zezakeela esan ziguten. Baina keba, berriro ere
haurrak gabonetako jostailuen iragarkiekin bezala en-
gainatu gaituzte. Inuzentzetat gauzkate. Israelek ez du
bururik makurtuko, lur azpian ehunka kilo urre egonda
ere. Beltz ukitua hartzen ari den Washingtoneko Etxe
Zuriak, gainera, erabateko babes ematen dio izar ihes-
korrari.

Kukutza, kuku egiteari utzi dion etxe berezia ere ezin
ahaztu. Lehenengotik hirugarrenera, laugarrenetik es-
paziora, metro karratuetatik kilometroetara, txikitasune-
tik handitasunera, ametsetatik errealtatera, kultura ze-
rion etxea arimarik gabe utzi dute. Orain dozenaka egingo
dituzte, baina hamarrek ezingo dute bakarra ordezkatu.
Azken batean askori oparitu beharko die aurtengoa
Olentzerok ikatza. Bankariak lapur eta iruzurren tekni-
kak aplikatzen hasiak dira, eta ekintzek ez dute etenik.
Martxa honetan, lehenaz gaidik, “hombre”k geroz eta
zailago dauka gizon izatea.

Irakurleak mintzo

Arkupeak
elkarteko
jubilatuek
Benidormen

Fernando ETXEBERRIA

Arkupeak elkarteko jubilatuekin Benidormeko bidai batean arduradun gisara joateko ohorea izan dut aurten, hiri horretan hamalau eguneko egonaldia eginenez. Lehendik ere izan nuen ikastetxeko ikasleekin bidaiatzeko aukera, baita Bergarako ikastolakoekin eta unibertsitateko ikasleekin ere, baina inoiz ez nuen hone-lako bidai bat egiteko aukerarik izan. Horregatik, kezka pixko batekin ere joan nintzen, honelako esperientzia baten funtzionamendua ez eza-gutzeagatik beldur pixko batekin.

Calixto eta Rosa delegatuen informazioari esker egonaldia oso positiboa izan zen. TTIPI-TTAPAKo lerro hauen bitartez eskerrak eman nahi dizkiet biei, bere laguntza desinteresatuegatik eta osasun arazoaren bat izan zutenei osasundegira laguntzeagatik. Eskerrik asko biho-

tzez. Pozik eta kontent bueltatu nintzen etxera, pertsona bikainak eza-gutzeko eta beraiekin bizitzeko aukera izan nuelako eskertua eta emozionatua, beraien familiak aurrera ateratzeko bizitzaren zati handi batean borrokatu eta sufritu duten pertsonak, trukean deusekatu gabe. Gizarte osoaren errekonozimendua merezi duten eta orain, beraien bizitzaren azken etapetan, gozatzeko eskubidea duten pertsonak. Bidaiako egun horietan aukera izan nuen Arkupeak elkarteko jubilatuek gure herriko betiko dohaiak mantentzen dituztela, hala nola adeitasuna, laguntasuna, umore ona, tratu goxoa eta atsegina eta, batez ere, errespetua.

Benidormen egon nintzen hamalau egunetan ez zen inolako gertakirik izan, inolako protestarik, inolako aurpegi txarrik... alderantziz, nere kideak kontent eta pozik sentitzen zirela somatu nuen. Horregatik zoriondu eta bihotzez eskertu nahi ditut, nere koordinatzaile lana erraza eta eroso egin zutelako. Eskerrik asko bihotz bihotzez.



Bota bertsoa

Iban GARRO (Lesakako bertso eskola) • Doinua: Maisu Ruanda zer da?

Euskal Herriko bertso eskolen topaketa Lesakan

Azaroak hamabi datorren datari jarri gaitezen adi: Bee... Egunari. Elkarrekin kantari Euskal Herriari, doinu errimak kabi irrifar bat sari: izan gaitezen ardi eta bertsolari!

Eguna eta gaba ibiliko gara Txiritaren gisara mugituaz aba. Bertsoaren zirrara ederregia da: beraz ama, alaba, atta ta osaba egun horretan, bada, denak Lesakara!

11 galdera labur

Atarrabian sortutako lesakarra ala Lesakan bizi den atarrabiarra?

Nahiz eta hogeitaz hamar urte pasatxo daramatzadan Lesakan, ez dut lortu lesakarra izatea. Halere, ia bizitza erdia daramadanez hemen, erdi atarrabiarra, erdi lesakarra naizela erraten dut.

Lesakan ikasi duzu euskaraz?

Amak erakutsi zizkidan lehenbiziko euskarazko hitzak. Gero, euskaltegian hasi nintzen eta ondotik Gipuzkoara barnetegi batera jo nuen. Konturatu nintzen zer diren euskalkiak Nafarroako bat ikasi nahi izan nuen eta Zubietara joan nintzen.

Zer lortu duzu Solaslagunari esker?

Jende berria ezagutu, lagunak egin, eta ekintza politetan parte hartzea.

Solaslagunarekin, zein da zure helburu nagusia?

Hemengo euskara hobetu eta ingurua, ohiturak eta... gehiago ezagutu eta lagunak egitea.

Nola tratatzen zaituzte euskaldun zaharrek?

Hagitz ongi, estimatzen dute nahiz eta lruñea aldeko izan, euskalduna izatea eta ahalegintzen naizela ikustea.

Zer erranen zenieke euskaldun berriei?

Eutsi eta ez etsi, hemen bizitzeko euskalduna izatea ikaragarri gauza polita eta beharrezkoa dela.

Eta euskaldun zaharrei?

Esker aunitz gure eus-

kara maitea bizirik mantentzeagatik. Erakutsiko didazu?

**Zein da oraindik euskararen alde-
tik hobetzeko gelditzen zaizuna?**

Nire hizkera hobetzea, eta batez ere, hemengo euskara gehiago ikastea.

**Zer pentsatzen duzu euskaldun zahar-
rak erdaraz somatuta eta zu,
euskaldun berria, euskaraz egiteko
eginahalean ari zarela ikusita?**

Adinekora bada, euskaraz solasteagatik pasatu duenarekin pentsarazi egiten dit. Baina heldua edo gaztea bada, ez dela konturatzen herri honen altxorra galdu behar duela.

**Zer du Lesakak Atarrabiak ez du-
ena?**

Herri txikia eta bizitzeko lasaia dela, mendi politak, baserriak eta euskara gehiago dituela.

Amets bat?

Euskaldunekin euskaraz solastea, ez dakienera edota euskaldun berriei laguntzea, hemengo euskaraz dena ikastea eta euskara izatea hizkuntza ofiziala Euskal Herri osoan.



Imanol BORDA → Lesakako solaslaguna

inguruko ekitaldiak, informazioa eta
bibotekak jakin nahi badituzu

Egin zailaz **ttipi-ttapa** ren harpidetun

- Hego Euzko Herria 17€
- Euzko 10€
- Baserri, Zirkuluak eta
Makalari 11€
- Arabako eta Nafarroako 10€
- Ibai Euzko Herria 10€
- Lurra 7€

(9034) 948 63 54 58
www.ttipi.net

IRAKURLEAK MINTZO Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefona. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta:

info@ttipi.net



Posta: Anduetzeta, 12 31760 ETXALAR



Tel.: 948 63 54 58



Faxa: 948 63 54 57

ANDRE TA JABE

Estereotipoak suntzitzeko nahia

U rriaren 7an, Bidelagun Elkartek, Bolondresen inguruko formazio saioa antolatu zuen Elizondon. Bortziritatik Elkarrizan elkartearen izenean lau kidek parte hartu genuen jardunaldietan, hiru emakumezko eta gizonezko bakarra. Saioa aurrera joan ahala, eta ikusita gehien-goia emakumezkoa zela, parte-hartzaileak zenbatu nituen: 30etik 26 emakumezko eta 4 gizonezko. Ekintza publikoetan, batez ere, alor sozial, politiko eta ekonomikoan, gizonezkoak gehien-goia osatzen badute, zergatik formazio saio honetan, ez? Transmittitzen diren baloreekin eta estereotipoekin zerikusia du, non emakumea helduen eta haurren zaintzaz arduratzen den? Jean-Jacques Rousseauk, XVIII. mendean, zera zioen: *“emakumearen hezkuntzak gizonak zaintzera bideratua egon behar du; txikitari eta helduak direnean zaindu, aholkuak eman, kontsolatu eta bizia gozoago*



DATUA

%73,75

emakumezkoen %73,75ak besteen zaintzarekin lotura dituzten ikasketak aukeratzen ditu, ama-zaintzaile rola betikituz. %27ak soilik aukeratzen ditu ikasketak teknikoak.

egin. Horiexek dira emakumeen eginbeharrak eta beraien heziketaren oinarritzko balore”. Duela hiru mende idatzitako hitz horiek (1762ko *El Emilio* liburuan), gaur egun matxista kutsua daukate, baina Elizondon elkartu ginenak zenbatuz, zer pentsa daiteke? Bolondres bezala iharduteko, bertze pertsonak zaintzeko, zeintzuk daude prest?

Gaiaz eztabaidatzeko, Bortziritako Kontziliazio Itunetik, ‘Ardurak banatu, elkar maitatu’ lelopean, bi jarduera antolatu ditugu Kontziliazio Astea ospatzeko.

Batetik, azaroaren 5ean, larunbata, arratsaldeko 19:00etan, Berako kultur etxean ‘Zaintzaileak’ (Cuidadores) dokumentala proiektatuko dugu. Hainbat sari jaso dituen filma: Valladolid, Montaverner, Euskadi. Bertzetik, azaroaren 10ean, Lesakako erabilera antzeko aretoan, 18:00etan, Neus Albertos Berdintasun teknikariak zainketen eta arduren inguruko hitzaldia emanen du. Neusen hitzaldiak izan duen arrakasta ikusita, Bortziritara ekartzea erabaki dugu. Bai dokumental emanaldian zein hitzaldian haur-txoko zerbitzua eskainiko da. Bi saioen helburua zainketa eta erantzukidetasunaren inguruan hausnarketa egitea da, zainketa-aren balore soziala eta ekonomikoa aldarrikatzeko.

Bortziritako Gizarte Zerbitzuak • ssb@lesaka.net • Tel: 948 635036

%20
DESKONTUA
SUKALDE
ALTZARIETAN

expert **BORTZIRIAK**

Bidasoa, 45 · 31780 Bera · 948 630377 / 948 631091 · info@bortziriak.com · www.bortziriak.com

BIDASOA
BIDASOA - BERTZIRIAK
BIDASOA - BERTZIRIAK
BIDASOA - BERTZIRIAK
T.F. 859 671 442
BERA

LABE ZAR
Tel: 948 631 076 - BERA

Javier Manterola
Taldeko instalazioak
burgintza • gas
kalafaktas
Tfn: 629489902 - BERA

NAFARROA

MURRIZKETAK → HAINBAT ERAGILEK DEITUTA, 'ERANTZUN OROKORRA ANTOLATZEKO' BATZARRA LARUNBATEAN

2012rako aurreikusitako murrizketak gelditzeko asanblada egingen da Burlatan

TTIPI-TTAPA

Indarrak batu eta 2012ko aurrekontuetan Nafarroako Gobernuak aurrekusi dituen murrizketak gelditzeko deia egin dute Nafarroako hainbat eragilek. Mugimendu feministan, sindikalean, ekologistan, auzo mailan, euskaltzalean, internazionalistan, hezkuntza eta osasungintza publikoaren alde... dabilzan eragileak dira eta hilaren 15ean prentsaurrekoa eskaini zuten Iruñean, eta Gobernuak krisiaren aitzinean hartutako «neurri larriak» salatu zituzten.

Batetik, 2011ko aurrekontuetan egin diren murrizketei egin zieten aipamena eta gauza bat eta berte, %15,8ko murrizketa egonen dela salatu zuten. Murrizketak bereziki Osasungintzan, Hezkuntzan eta Gizarte Ongizatean eraginen dutela adierazi zuten: «egunetik egunera osasun eta hezkuntza zerbitzuak okerrera doaz eta laguntza eta prestazio sozialak guttitu edo desagertzen ari dira. Aitzitik, Abiadura Handiko Trenaren (45 milioi 2011n) obrak, enpresa eta errenta handientzako zein Opus eta hezkuntza pribatuarentzako dirulaguntzak ukiezinak dira».

Horrez gain, Ondarearen gaineko Zerga kenduzenetik, Nafarroan 265 milioi euro guttiago jaso direla ere azaldu zuten, berte 200 gehiago galdu direla pentsio-plan pribatuetan inbertitzen dutenei egindako desgrabazioengatik, eta 80 milioi euro gehiago urtero galten direla Elkartearen

Zergaren kenketak tarteko. Arena Pabiloia (26 milioi) edo Los Arcoseko zirkuitua (52 milioi) bezalako «azpiegitura erraldoietan dirua xahutzen» dela kritikatu zuten. «Ez

da dirurik falta, lapurrak, pribilegioak eta latsagabekeria dira soberan». Krisiaren ondorioak «modu zuzenean» pairatzen ari direnak herritarrak direla oroitarazi zuten.

Egoera ikusita, mobilizazioarako deia egin dute, «eraso guztiak gelditu eta krisiaren kostua eragin dutenengan eror dadin». Antolatu den ekimenetako bat larunbatean, hilak

29, Burlatan egingen den «miseriazko aurrekontu eta murrizketa sozialen aurkako erantzun orokorra antolatze» asanblada herritarra, irekia eta parte hartzailea da.



Bortzirietako
Hiri Hondakinen
Mankomunitatea

Jakinarazpena

2011ko bigarren urte erdiko zabor bilketa eta tratamendu zerbitzuetako tasak kobratuko direla, ondoren seinalatzen den bezalaxe:

ORDAINTZEKO ERA

Ordainketak banketxeetan helbideratuta ez dituztenak:

Abisuan agertzen den edozein kontutan egingen da ordainketa nahi den banketxetik, abisu hirukoitzua aurkeztuz.

Ordainketak banketxeetan helbideratuta dituztenak:

Kontutik zuzenean kobratuko zaie.

ORDAINTZEKO EPEA


- 2011ko azaroaren 30ean bukatuko da.
- Ordaintzen ez bada, epea 2011ko abenduaren 31ra arte luzatuko da. Luzapen horri dagokion interesa aplikatu ahal izanen da.
- Aipatutako epea pasatu ondoren, premiamenduzko exekuzio bidez %20ko errekaraguarakin kobratuko da.

Bortzirietan, 2011ko urriaren 1ean

Presidentea
Miguel Maria Irigoien Sanzberro

A background image of pink cherry blossoms in full bloom, with some flowers in sharp focus and others blurred in the foreground and background. The overall tone is soft and romantic.

Omiasaindu eguna
Santu guztien eguna



OMIASAINDU EGUNEKO GOZOKIAK

Haize kruxpetak, santu hezurak...

Azaroaren 1ean Santu Guztien eguna ospatzen da, katolikoek artean hildakoak omentzeko dagoen ospakizun eguna. Baina egun honetan dena ez da negar malkoa, familiak mahai inguruan bildu eta jaki gozoak dastatzeko ohitura ere izaten da. Data honekin lotuta, hauek dira ia gozotegi guztietan aurki ditzakegun postre tipikoak:

HAIZE KRUXPETAK: Aste Santuetan gehiago kontsumitzen badira ere, Omiasaindu egunean ere aunitz saltzen dira. Ura, irina, arrautzak, gurina, azukrea eta gatz ximiko batekin egiten da oreka eta olio ugaritan frijitu. Gero, ongi xukatu ondotik, alde batetik ebaki bat egin eta krema, esne-gaina edota txokolatearekin betetzen dira. Ez badira betetzen, gainera azukre hautsa eta kanela botatzen zaie eta... jateko prest.



SANTU HEZURRAK: Mazapan orearekin egindako tututxo hauek, gainera almibarrez estalita izaten dira eta, duten hezur itxuragatik hartzen dute izen berezi hori. Santu hezurak hainbat gaiekin betetzen dituzte gozotegietan: tradizionalenak arrautza gorringoarekin beteak izaten dira, baina... aukeran, badira txokolatez, marmeladaz, aingeru-adatsez... beteak. Norberaren esku gelditzen da gustokoena hautatzea.



HILOBIAK ETA HILARRIAK



Marmol eta harri landuak

Hildakoen oroitzapenezko monumentuak egiteko usadioa arras aspalditik datorkigu. Hainbat herritan arras ezagunak dira disko itxurako hilarri zaharrak (Etxalar, Ainhoa, Sara...). Gaur egun, ordea, gurutzetaren ikonografia gailendu da hilerri kristauetan eta estilo zein material berriak landu dituzte hileta-arteak lantzen duten enpresek.



KRISANTEMOAK, KRABELINAK, GLADIOLOAK...

Hilerriak apaintzeko loreak



Krisiak lore salmentari ere afektatu diola bistakoa bada ere, Santu Guztien egunean lore freskoak (moztuak eta landareak) hilerrietara eramateko ohiturari eusten dio jendeak.

Lore-denda eta mintegiek prest dituzte dagoeneko urteroko eskaintzak: krabelinak, gladioloak, krisantemoak, arrosak... Izan ere, lore produktora emanak diren mintegi handiek urri hondarrerako programatzen dute euren ekoizpena, izaten den eskakizun handiagoari aurre egiteko.

Krisantemoak eta krabelinak dira gehien saltzen direnak eta azkeneko urteotan ez dira hainbertze 'zentro' egiten. Alabaina, larrosak eta margaritak ere aukeratuener artean egoten dira. Koloreari dagokionez, berriz, zuria da gehien eskatzen dena baina bada kolore biziak eskatzeko joera ere: morea, fuk-sia, arrosa, horia... Jakina, honetan ere modak izaten dira eta


Lore-denda

Landi FLor

VENTA
PEIO

AUKERA HANDIA KALITATEZKO PRODUKTUETAN

Landareak, loreak, fruta-arbolak, lore-konposizioak... | Etxe barrurako zein kanporako landare eta arbolak
Ongarriak eta ongartzeko gaiak | Lorategirako erremintak | Dekorazio osagarriak, loreontziak eta jardinerak



Domisatndu egunerako loretan eskaintza zabala



Landiflor zure lore-denda egunero irekia: 9:30-12:30 | 13:30-18:30

Dantxarinea 31712 URDAZUBI | T. 902 210 800 | F. 948 599 446 | landiflor@venta-peio.com

www.venta-peio.com • 00 34 902 210 800

EUSKARA → EUSKARA HOBETZEKO, LAGUNTZEKO, ERABILTZEKO, BIZITZEKO...

Solaslagun egitasmoan izena emateko epea zabalik dago

Ekimena ezagutarazteko kalera aterako dira ferietan

Aurten berrikuntzak izanen dira

TTIPI-TTAPA

Badira zenbait urte Baztanen, Bortzirietan eta Malerrekako Solaslagun egitasmoa abian paratu zela, euskaraz mintzatzeko ohitura dutenak eta mintzapraktika egin nahi duten pertsonak biltzen dituen programa, alegia. Eta urteik urtera, gero eta jende gehiagok bat egiten du euskara erabili eta hobetzeko hitzorduekin. Aurten ere Solaslagun proiektua martxan paratu nahi da Bortzirietan, Baztanen eta Malerrekako izena emateko epea zabaldu da. Urriaren 31 bitarte telefono edo helbide honetan apuntatu beharko da: 610920673 edo solaslaguna@mintzapraktika.org. Nahiz eta talde batzuk urrian hasi, apuntatzeko aukera gerora ere izanen da eta informazio gehiagorako Bortziriak, Malerrekako eta Baztango eus-



UTZITAKO ARGAZKIA

Topaguneak panel haundi hau prestatu du, jendeak bertan argazkiak atera ditzan.

kaltegietan galde daiteke, baita Bortziriak eta Malerrekako Mankomunitateetan eta Baztango udaletxean ere.

Joan den urtean, osotara 40 lagun aritu ziren Solaslagunean eskualdean. Baztanen lau talde, Malerrekako hiru eta Bortzirietan bi.

Euskaldun zahar zein berriek hagitz paper garrantzitsua jokatzen ahal dute euskara ikasi edo hobetzeko premia duten herritarrei lagunduz. Eta hori giro atseginean eta gustuko jardueran bat egiten lortzen denean, esker oneko kontua dela azpimarratu dute proiektuaren sustatzaileek.

GURASOLAGUN

Ikastetxeetako gurasoak bertze gurasoekin biltzen dituen mintzalagunaren aldaera da Gurasolaguna. Gurasoendako propio prestatutako mintzapraktika saioak dira.

DATUA

40

LAGUN

aritu ziren joan den urtean Solaslagunean Baztanen, Malerrekako eta Bortzirietan. Lau, hiru eta bi talde, hurrenez hurren.

BERRIKUNTZAK

Aurtengo Solaslagunak hainbat berrikuntza izanen ditu. Horieta bat Gurasolagun izanen da, guraso taldeak eratzeko saiakera, hain zuzen. Ikastetxeetako gurasoendako propio prestatutako mintzapraktika saioak dira, eta horretarako, gurasoak ikastetxeetan egoten diren denbora aprobetxatuko litzateke mintza taldeak antolatze-ko.

Mintzalawood ere aurtengo nobedadea da, bertze erranda, mintzapraktika egitasmoaren berri emateko ekimena. Topaguneak panel haundi bat pres-

tatu du, jendeak bertan argazkiak ateratzeko, panelaren bi zuloetan aurpegiak jarri eta argazkiak ateratzeko. Mintzapraktika programaren izarra norbera dela adierazi nahi da honen bidez.

Material hori aprobetxatuz, postua paratuko da Elizondo (urriak 28), Doneztebe (azaroak 18) eta Lesakako ferietan (azaroak 24), 11:00etatik 13:00etara, eta jendeak informazioa eskatzeko eta nahi izanez gero, apuntatzeko aukera izanen du. Mintzapraktiketako lau metroko banderola haundi bat ere izanen da postuaren arreta bereganatzeko.

Aurkezpen luntzak ere egingen dira Bera, Doneztebe eta Elizondon azaroko lehenbiziko bi asteetan, eta horietan ere informazioa eskatzeko aukera izanen da.

Solaspoteoa deritzen ekimena ere egingen da aurten. 2009an Baztanen egin zen, 2010ean Malerrekako eta aurten Bortzirietan egitea aurreikusia dago, musika, janaria, edaria eta giro on eta alaiaren jendea ezagutzeko. Horrez gain, hilabetearen behin, saio osagarriak egingen dira.

Alberto RETEGI
abokatuak
abokatuak
© 948 630 763 - Altzate, 17 - BERA

ANSONEA *BERA*
Egunko menu
Menu begetariano
Menu makrobiotiko
Plater konbinatuak
Bakarrak + Errezak
948 630 763
Bera, 17 - Altzate

arropak - mandulak
mintak - mandulak
tsutak - kurtinak
alfaxiak
Goya
Bera, 17 - Altzate

GIZARTEA

GIZARTEA → CEDERNA GARALUR ELKARTEA

Baztan, Doneztebe, Bera eta Goizuetako udal ordezkariak Cederna Garalurreko zuzendaritzan daude



UTZITAKO ARGAZKIA

Cederna Garalur Elkarteako Zuzendaritza Batzorde berria osatzen duten kideak.

Lekunberriko alkatea da elkartearen lehendakaria

erakunde sektorialetakoek osatzen dutena, hain zuzen. Elkartearen estatutuaren arabera, eskualde-ordezkariek tokierakundeetako agintariak dira, eskualde-ordezkarik gisa aukeratuak 2011ko irailaren 22an egindako Batzar Nagusian.

ZUZENDARITZA
Hogei dira zuzendaritza

batzordea osatzen duten kideak eta horietako batzuk eskualdekoak dira: Gloria Agerri Doneztebeko zinegotzia eta Mallerrekaren ordezkaria; Pablo Miranda Goizuetako alkatea eta Leitzaurren eskualdearen ordezkaria; Jon Abril Berako alkateordea, eta

Bortzirietako ordezkaria eta Garbiñe Elizegi Baztango alkatea, eta Baztan-Urdazubi-Zugarramurdi eskualdearen ordezkaria

Ordezkarik horien artean Cederna-Garalurreko goi karguak ere izendatu dira. Honela, Jose Maria Aierdi Lekun-

berriko alkatea eta Larraungo ordezkaria izanen da elkartearen lehendakaria eta Mauro Gogorza Irunberriko alkatea izanen da lehendakariordea. CCOO sindikatuko M^a Cruz Bona izanen da idazkaria eta EHNE sindikatuko Joseba Etxarte diruzaina.

TTIPI-TTAPA

Cederna Garalur Elkarteak zuzendaritza batzorde berria du urriaren 10az geroztik, elkarteak lantzen duen lurraldeko eskualde-ordezkariek eta

BERA AGENDA URRIA

Elkartean gaireko informazio gehiago: 012 telefonoan www.beratuakela.net

- 6** "CUIDADORES" FILMA (Alzheimerri buruzko dokumentala)
BERA - Kultur Etxean - 19:00etan - Prezioa: 3€
Ludoteka zerbitzua eskaintzen da 3 - 12 urtekoentzat (uztzean jarraituko)
948 93 50 36 telefonozan eman behar dira!
Antolatzailea: Bortzietako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak-Markomunitateak
- 13** HAURRENTZAKO DANTZA EMANALDIA "NINIKA" (Emale)
3-9 urte bitartekoentzat
BERA - Kultur Etxean - 17:00etan - Prezioa: 3€
- 22** SANTA ZEZILIAKO KONZERTUA
BERA - Musika Eskolan - 18:00etan
Antolatzailea: Isidoro Fagoaga Udako Musika Eskola
- 25** HAURRENTZAKO IPUIN KONTALARA (ZASKUIN MUIJKA) (4-7 urte bitartekoentzat)
IPUIN BIHURRIAK
BERA - Herri Liburutegian - 18:00etan
- 25** LIBURU AURKEZPENEA
"Ez dugu nahik, Intsumisioaren ahotsak
Euskal Herrian" | Edurne Elizondo
BERA - Herri Liburutegian - 18:30etan
- 26** ANTZERKIA "SUPERHEROINAS"
(Trokolo teatro)
BERA - Kultur Etxean - 19:00etan - Prezioa: 5€
Ludoteka zerbitzua eskaintzen da 3 - 10 urtekoentzat (uztzean jarraituko)
948 93 50 36 telefonozan eman behar dira!
Antolatzailea: Bortzietako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak-Markomunitateak
- 30** TRONPETA, SAXOFOIA ETA KLARINETE ENTZUNALDIA
BERA - Musika Eskolan - 18:00etan
Antolatzailea: Isidoro Fagoaga Udako Musika Eskola

BERAKO XIII. KAFE ANTZERKI ZIKLOA

- 4** SAHEAN ZINTZILKATUA (Taller-tekla)
Kafetako ostiauan - 22:00etan
- 11** AGUR, MANHATTAN! (Kafetako ostiauan)
Errekalde ostiauan - 22:00etan
- 20** BUAH TXABALI (Ostiauan)
Auzo ostiauan - 19:00etan

Antolatzailea: Berako Euskarri Batzordea
Laguntzaileak: Berako Kultur Batzordea
Bortzietako Euskarri Markomunitateak

14. eta 18. urteak ASTE DIGITALEKO AUTOBUSA:
KLIK BATEKIN ASKI DA
BERA - Kultur Etxeko Ateregietan
Asteburuetan antolatzen dira: 10:00 - 13:00 | 14:30 - 17:30
Orduetan, telebista: 10:30an "Zurtoaren digitale eta NA elektronikoa"
12:00etan "Administrazio elektronikoa"
zen errealitate: online, autobusa bertan | Antolatzailea: Cederna Garalur

13, 20, 27 eta 28. urteak MENDITZULI GIDATUAK
Berako Bunkerretan barrena
Auzo Gogortze argazkilariek gidatuta
BERA
Argazkiak eta zen errealitate: 012 telefonoan edo
948 93 50 36 telefonozan kargatu daitezke!
Mendi itzulian ondoak Oinarrizko Landapena
zerbitzu argazki errealitate Gumi Tackoa
Elkartean

KIROLA → JOAN DEN URTEKO ERANTZUNA IKUSITA

Emakume eta ttikien atletismo eskolak landuko ditu aurten ere Manttalek

Gaztetxoak
larunbatetan
biltzen dira eta
emakumeak
asteazkenetan

TTIPI-TTAPA

Manttale Mendi lasterketa taldeak ttikien eta emakumeen atletismo eskolak landu nahi ditu aurten ere.

Ttikienendako ikasturte berria urriaren 15ean abiatzekoa zen eta Iñaki Pikabea, Jone Zelaia eta Cristina Arbues dira irakasleak. Ttikien eskola 2004. urtean edo lehenago jaiotakoei zuzendua dago eta lau mailatan banatua dago: benjaminak, alebinak, infan-tilak eta kadeteak.

Saioak larunbatere eginen dituzte, bi orduz. Eta atletismo entrenamenduarekin zerikusia duten ekintzekin batera, mendiaterraldia, inguruko lasterketetan konpetizioak eta Nafarroako Kirol Jolasen barrenean lruñeko lasterketetara ateraldia ere eginen dituzte.

EMAKUMEEN ESKOLA

Emakumeen atletismo eskolak ere aitzinera segitzen du bigarren urtez eta Patxi Irazoki, Jone Zelaia eta Cristina Arbues dira irakasle. Asteazkenero 19:30ean Ricardo Baroja ikastetxe-

an egiten dituzte entrenamenduak. Orubete eta ordu eta erdi arteko saioak dira, beroketak, luzaketak, lasterketak, abdominalak eta indar ariketak barne. Bi taldeetan banatuta ari dira.

Udaletxeko lanak

Gorritz enpresak eginen ditu Herriko Etxea moldatzeko bigarren faseko lanak. Udalakegin-dako deialdian, bortz enpresek aurkeztu zituzten eskaintzak, eta horien artean, lanak Leitzako enpresari ematea erabaki zuen irailaren 29ko udal plenoan, 519.724,63 eurotan. Marisol Taberna alkateak kontatu digunez, «sotoan artxiboa gordetzeko tokia egokitu da eta langileen-tzako aldagelak eginen dira. Beheko solairuan, eskuin aldera, bulego batzuk paratuko dira eta eskailera azpian komunak. Lehenbiziko solairuan bulegoak joanen dira: idazkaritza, alkatetza, kontu hartzailearena... Bilerak gela ere eginen da. Bigarren solairuak eta ganbarak, azkenik, berdin segituko dute».

Bertzalde, Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzarekin sei farola aldatu dira Ricardo Baroja ikastetxearen eta kiroldegi aldeko erreka bazterrean. Kontsumo baxuko argiak paratu dira.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Labiaga Ikastolako ikasturte hasiera

Hainbat gauza ikasten ari dira Labiaga Ikastolako neska-mutikoak ikasturte hasiera honetan. Irailean, Aspace zentroaren 40. urteurrena zela-eta, DBH eta Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako ikasleek bisita egin zieten Maddi egoitzan lan egiten dutenei eta Labiagatik adierazi dutenez, esperientzia «aberasgarria» izan zen, eta Maddiko langileak zoriondu nahi izan dituzte. Bertzetik, 5. mailako ikasleek iraileko lehenengo hamabortz egunetako goizetan ingelesez izan zituzten ekintza guztiak, Dave O'Connell irakasle irlandarrearekin. Eta irail hondarrean, berriz, Lizuniagara irteera egin zuten ikasle eta irakasle guztiak.

Iamoteneatik Larunera mendi bizikleta ibilaldia eginen da igande honetan

Gure Txokoa Elkartek antolatuta, Larunera mendi bizikleta ibilaldia eginen da igande honetan, urriak 30. Txirriindulariak 8,9 kilometro eta 850 metroko desnibela duen ibilbideari egin beharko diete aurre, iamoteneatik abiatuta 905 metro dituen Larunera igoz. Eta bitartean, Eztegarra, Altxate, Itzea auzoa, Usategieta, Landagaita eta Zizkuitzen barna pasa

beharko dute. 10:00etan emanen zaio ibilaldiari hasiera. Izen-ematea egun berean egin beharko da iamotenean, 10 euro ordainduta. Hiru sari banatuko dira: lehenbizikoak 200 euro jasoko ditu; bigarrenak 100 euro eta hirugarrenak 50 euro. Antolatzaileek ohartarazi dutenez, zailtasun handiko ibilbidea da. Dutzak ere egonen dira futbol-zelaiko aldagelatan.

Ingeles ikastaroa doan gaztetxean

Kaxerna Gaztetxeak doako ingeles ikastaroa antolatu du maila guztietako jendearentzako. Helburu nagusia komunikatzeko ingelesa ikastea izanen da, ahozkoa landuz. Baina hizkuntza idatzia ere landuko da, irakurketen bitartez eta jarduera dinamikoak ere eginen dira.

Astelehenetan izanen dira saioak, urriaren 24an hasita, hiru hilabetez, 19:30etik 21:00etara.

Izen-ematea: klasera joanez edo *kaxerna_gaztetxea@hotmail.com*-en.

Kultur agenda

Ekitaldi aunitzetako egunak datoz eta hurbilenekoak aipatzearen, urriaren 31n Txekiako The Gentlemen singers abesbatzak kantatuko du Kultur Etxean (19:30). Azaroaren 5ean *Cuidadores* Alzheimerri buruzko dokumentala ikusgai izanen da Kultur Etxean (19:00); azaroaren 13an haurrentzako dantza

saioa izanen da Kultur Etxean (17:00) eta azaroaren 22n, Santa Zezilia eguneko kontzertua Musika Eskolan (18:00).

Bertzetik, azaroaren 4an emanen zaio hasiera XIII. Kafe Antzerki Zirkloari. Egun horretan Txirrene taldearen *Sarean zintzilikatua* ikusgai izanen da Katakun (22:00); hilaren 11n Xagu taldearen *Agur, Manhattan!* eskainiko da Errekalden (22:00) eta azaroaren 20an Osoronon *Buah Txabal!* Auzoan (19:00).

LESAKA

ELKARTEAK → MENDI TALDEAREN ESKUTIK

Santiago Bideko lau etapa osatu ditu Beti Gaztek

Heldu den urtean Errioxaraino ailegatu nahi du

Aitor AROTZENA

Beti Gazte elkarteko mendi taldeak Santiago Bideko lau etapa egin ditu azken hilabeteotan. Irailaren 25ean Lantz eta Iruña artean egin zuten laugarren etaparekin akautu dute aurtengo denboraldia, baina hurrengoan Errioxaraino ailegatzeko asmoa dutela jakinarazi dute.

Irailaren 25eko hondar ibilaldian 43 'erromesek' hartu zuten parte eta sei ordu behar izan zituzten ibilbidea osatzeko. Tartean, Sorrauren, 17 kilometro egin ondotik hameke-

tako ederra izan zuten, bertan bizi den Bixente Apeztegia herritarra eta Gloria bere emaztearen eskutik. Indarberiturik, Iruñea bitarteko azken 13 kilometro zelaiei ekin zioten, Iruñeko Jesus eta Maria aterperaino ailegatzeko. Iruñeko sagardotegi batean bazkaldu zuten. Santiago Bideko lau etapek izan duten arrakasta ikusirik, heldu den urtean Errioxara bitarteko etapak egiteko asmoa azaldu du Beti Gaztek.

Gaztetxearen alde

Ametsari tira ta tira Gaztetxea herrira izenburupean poteo jendetsua, kontzentrazioa eta pelikula emanaldia egin zituen Gazte Asanbladak urriaren 14an.



Ba al zenekien...

Beti Gazte elkarteak, 1940. urtean sortu zenetik mila bazkideen muga gainditu duela lehen aldiz (1.020 ziren urri hasieran). Horietatik %90 herrikoak dira, eta bertze herrietako bazkideen artean, gehienak etxalartarrak dira.



UTZITAKO ARGAZKIA

Lantz eta Iruña arteko ibilbidea egin zuten "erromesak" kontent hiriburura ailegatzean.



ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

Udalak deitutako auzolana Pilarika Egunean

Urriaren 12a ez zen besta eguna izan Herriko Etxean. Udal bulegoak ohiko ordutegiarekin zabalik egon ziren Pilarika Egunean, baina horretaz gain, Udalak egindako deiar erantzunez, 30 herritar auzolanean aritzeko elkartu ziren. Onin erreka eta Erdiko Errotako kanala garbitzen aritu ziren. Urriaren 12an ez ezik, abenduaren 6ko Konstituzio Egunean ere gisako zerbaitegitea da Herriko Etxearen asmoa, euskaldunoi inposatutako besta egunak direlakoan.

hobeto ikusi, hobeto bizitzeko

ESKAINZA BEREZIAK
AZAROAREN 30a BITARTE

Distantzia guztietara ongi ikusteko proba itzazu **betaurreko progresiboak**
Betaurreko bakoitzarekin, graduazio berlineko **lentilla bikotea opari**

intzuri
OPTIKA

NAIARA ALBERRO RETEGI
OPTIKO OPTOMETRISTA
T 948 627 550 Bittiria 36, Lesaka

TEKNOLOGIA BERRIAK → INTERNET ZERBITZUA

Urte bete baino gehiago espetu ondotik ailegatu da ADSL

Teorian aurreko sistema baino egonkorragoa izanen da

herritarrak gustora egonen direla.

Guraso Elkartearen urteko bilera

Urriaren 18an, eskolako Guraso Elkarteak urteroko bilera orokorra egin zuen Kultur Etxean. Aitzineko urteko akta irakurri eta baieztatu zuten, Guraso Elkarte-ko kontuak gainbegiratu zituzten, baita jangelako kontuak ere, jangela eta sukalde berri- tzea aztertu zuten, kuoten ordainketa ere bai (10 euro familia bakoitzeko eta liburuak eta materialari dagokionez 75 euro haur bakoitzeko) eta azkenik, junta berri- tu zuten.

Bi urte pasatu ondotik, juntatik aterako direnak Agurne Leiza (lehen- dakaria), Angela Iri- sarri (idazkaria), Rosi Arrola (bokala) eta Aina- ra Arburua (bokala) izan- nen dira: oraindik ber- tze urte batez juntan se- gituko dutenak, berriz,



ARGAZKIA: JOSEMARI TELLETXEA

Usategietako igandea eta bezpera ederki joan dira

Larunbat arratsaldetik nabaritu zen besta giroa herrian. Mus txapelketan bedera- tzi bikotek parte hartu zuten eta irabazleak Xalba Zubieta eta Joxe Paccini izan ziren; bigarrenak Eñaut Iparragirre eta Asier Zelaieta eta hirugarrenak Kike Otazo eta Yugeros. Ondotik antzerkia izan zen Kultur Etxean. Bi aktore ezagunak han- txe aritu ziren jendaurrean berain musika tresnekin giro ezin hobea jartzen. Hagitz arrakastatsua izan zen, Kultur Etxea bete egin baitzen. Gero, jendea plazara hur- biltzeko txalapartak lagundu zuen eta pintxo eta sagardo dastaketa izan zen. Egu- naren akaberan, berriz, gazte afaria izan zen La Basque jatetxean eta ondotik kon- zertuak izan ziren, goizaldera arte giroa luzatuz. Usategietako Igandean, berriz, goizen goizetik jende parrasta hurbildu zen usategietara. Eguraldia primerakoa atera zen, nahiz eta goizean lainoa izan. Hori bai, usazaleek, ehizturiek eta hurbil- du ziren guztiek ere ez zuten uso aunitzik ikusteko aukerarik izan, dozena bat uso bakarrik erori baitzen sarean. Arratsaldean, Egan taldearekin plaza bete zen eta dantzan aritzeko aukera polita izan zen. Urtero bezala, ilunabarrean boletoen zozke- ta egin zen eta lehenbiziko eta bigarren sariak ez dira oraindik atera. Lehenbiziko saria (12 uso bizirik) 7.470 zerbakiari dagokio eta bigarren saria (bi lagunentzako afaria) 5.722 zerbakiari. Hirugarren saria (denda kanpina) Jose Angel Ariztegi eraman zuen, 5.743 zerbakiarekin. Norbaitek lehenbiziko bi sariak dituen txarte- la baldin badu, Altxatarekin jarri behar du harremanetan: 677 031920 (Eduerne).

Maite Irisarri (diruzaina) eta lone Arrospide (bo- kala) izanen dira. Aur- ten sartu diren guraso berriak hauek dira: Ma- ri Jose Irazoki, Nuria Baiona eta Ana Iriba- rren. Datorren egune-

tan erabakiko da bakoit- zak zein kargu izanen duen. Eta ordezkari gisa, Mertxe Goia atera da.

Lau monagilo berri

Jaunartzea egin on- dotik, Leire Iribarren,

Uxue Iturria, Olaia Itu- rria eta Rafaela Gomes monagilo lanetan hasi- ko dira. Azken urteetan nahiko haur gutti zeu- den lan honetan baina orain aspaldi ez beza- la, hamar ariko dira.



HANKETAKO ERREFLEXOLOGIA

ESKATU ORDUA: 656 793 855

Asteleheneretik larunbatara arratsaldeetan

Igandek 10:00etatik 14:00etara

litza 1. behean • Bera



ARANTZA

KULTURA → LARUNBATETIK ASTEARTERA

Dena prest dago larunbat honetan hasiko diren Kultur Egunetarako

Bertso afaria, haurrentzako ekitaldiak, solasaldia eta Baserritarren Eguna izanen dira osagai nagusiak

Nerea ALTZURI

Udazkeneko kulturaldiaren baitako xehetasun guztiak jaso ditugu. Euskara Batzordeak, Guraso Elkarteak eta Ekaitza Elkarteak antolatuta eta Udalaren laguntzarekin aitzinera eramanez diren ekitaldiak, urriaren 29tik azaroaren 1era izanen dira.

LARUNBATA, URRIAK 29

Larunbat honetan, urriak 29, Onintza Enbeita eta Oskar Estangarekin bertso afaria izanen da Ekaitza Elkartearen.

ASTELEHENA, URRIAK 31

Urriaren 31n, heldu den astelehenean,



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Herriko neska-mutikoak euren eskulanak atera zituzten iazko Baserritarren Egunean.

16:30etik aitzinera, haurrentzako ekitaldi morderoxka izanen dira. Berrikuntza gisa, Amaia Telletxeak gidatuta, kantak kantari ariko dira. Eskulan tailerren eta herri kirol saioaren ondorengatik, bestetan bezala, entzierro ttikia egingen dute. Aski tarte polita pasatu zuten orduan eta horrelakoak errepikatzea merezi du. Ekitaldi guztien ondorengatik, merezitako txokolate jatea

eginen dute.

Egun honekin jarraituz, 19:00etan Zahar Txokon Jakoba Errekondo zeraindarrak solasaldia eskainiko du. Jakoba baratze kontuetan arront jauntzia da eta *Bertze ikuspegi bat landareei buruz* izenburuko mintzaldia eskainiko du. Lorezaintza, baratze eta basogintza alorretako hainbat kontu jorratzeko aukera izanen da.

ASTEARTEA, AZAROAK 1

Azaroaren lehenean, asteartean, aspaldiko urteetatik Ekaitza Elkarteak prestatzen duen Baserritarren Egunean txanda izanen da. Ohi bezala, goizean herriko plaza eta frontoian bertan egindako eta hazitako hainbat produktu eta eskulan erakutsiko dira: aziendak, barazkiak, fruituak, gozoak, opilak, zerrikiak, gaztak, artisau lanak...

Denetarik ikusgai eta salgai izanen dira.

Bertze aldi batez, Arantzako ardi gazta lehiaketa ere egingen den bezala, parte hartu nahi duten gazta egileei goizean gazta frontoira eramateko eskatu zaie elkartetik. Horrez gain, joan den urtean bezala, Guraso Elkartearen eskutik Berako Etxegaraitarren poney-ak plazan ibilaldiak egingen ariko dira gaztetxoekin.

Ekaitza Elkarteak ostatua ere jarriko du, tragoxkak eta pintxo berroak eskainiz.

Aipatzekoa da, azken urteetan bertako eta inguruko jende aunitz hurbiltzen dela Baserritarren Egunean goizpasa.

Su egur lotea

Su egur lotea nahi duenak urriaren 31 izanen du eskaerak aurkezteko azken eguna. Herriko Etxean egin behar da eta etxe barazketeko lote bakarria eskatu ahal izanen da, 30 euro ordainduta.

F. LANCHAS
Akabidurantz eta berrozatzalain
Parkes eta parkes furratzalain
jartzea
Mota guztietako solak
Tel: 948 630 755 | M: 607 406 781

USOA
Nekazar
kooperatiba
Beran egindako perisak,
bertze markak eta ekologikak
Ongarriak - Burdin trenak
Insektizidak - Edanak - Hazak
Botikak (jenezitatekin)
Etxez ebeko banaketa egiten da
Kafelakzioa eta ibigailuendako gosalak
Tel. eta Faxa: 948 63 52 14 + ETXALAR

ERROTASAR
harategia
Berrak
produktuak
Etegera, 3 - BERA
Tel/Fax: 948 630 058

LEGARRA
Egunkariak | aldizkariak | liburak | oporak | tabakoak
bitxikiak | enkademazioak | plastikozkoak | tax publikoak
ZERBITZU BERRIAK!!
FOTOKOPIAK KOLORETAN A3 eta A4
USB-lik zuzenean inprimatzen dugu
TEL: 948 63 77 30 | ALBIZUR 9 - LESAKA

UDALA → DEIALDIA

Su egur lotea nahi duenak hilaren 31 baino lehen egin beharko du eskaera

Lote bakoitza 25 eurotan salduko da

bakarra eskatzen ahalko da, 25 euro ordainduz.

Udal bulegoetan berogailua

Udal bulegoetan berogailua paratuko da. Bulego berrietara pasatu zirenetik, berogailu elektrikoak erabili izan dira, baina orain, biomasa bidezko sistema paratuko da. Arantzako Goienburu enpresak eginen ditu lanak, 9.760,87 eurotan.

TTIPI-TTAPA

Urtero bezala, su egur loteak eskatzeko deialdia egin du aurten ere Udalak. Interesatua dagoenak urriaren 31 izan behar du eskaera egiteko azken eguna, eta Herriko Etxean egin beharko du. Etxe bakoitzeko lote



ARTXIBOKO ARGAZKIA

San Juan Xarreko obrak

TTIPI-TTAPAren aitzineko ale batean, San Juan Xar alderdia berreskuratu eta aisiaren gune bat sortzeko, Udalak dirulaguntza jasotzekoa duela aipatu zen, Cederna Garalur elkartearen bitartez. Baina laguntza osoa jaso ahal izateko lan gehiago egin behar dira eta hasiera batean irailaren 30erako bukatuak egon behar zuten. Baina Udalak luzapena eskatu du eta onartu egin diote.

UEMAn sartzea

Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatean sartzeko proposamena esku artean darabilki Udalak. Oraindik deusez eraba-

kia ez badago ere, gaia plenoetara ailegatu da.

Igerilekura

Multikiroletan izena eman duten eskolako 4.,

5. eta 6. mailetako ikasleak Lesakako igerilekura joan behar dira astean behin, abendura arte. Ortziraletako saioetan herrian ariko dira kirola egiten.

ARANTZAKO KULTUR EGUNAK 2011

Urriaren 29an, larunbatearekin
21:00etan, Ekaitza Elkartearen
BERTSO AFARIA
ONINTZA ENBEITA eta OSKAR ESTANGA

Urriaren 31n, astelehenarekin
16:30etik aitzinera, Herriko Plazan
HAURRENTZAKO EKITALDIAK
Kintak Amala Teiletxearekin
Eskulan tailerrak
Herri kirolak
Entziera bulkia
Txokolatada

Urriaren 31n, astelehenarekin
19:00etan, Zahar Txokoaan
SOLASALDIA
"BERTZE IKUSPEGI BAT LANDAREEI BURUZ"
(lore zaintza, baratza, basogintza, etab.)
JAKOBA ERREKONDO

Azaroaren 1ean, astelehenarekin
BASERRITARRAREN EGUNA
ANTOLATZAILEA: Ekaitza Elkarte

Azaroaren 1ean, astelehenarekin
11:00etan, Herriko Plazan
HAURRENTZAKO PONEY-AK

Antolatzaileak: GURASO ELKARTEA EKAITZA ELKARTEA Laguntzailea: Arantzako Udala

DONEZTEBE

OSPAKIZUNAK → EGUN OSOKO BESTA

Ernadi Rock besta antolatu du Malerrekako Gazte Asanbladak azaroaren 5erako

Aisiladirako alternatiba eskaini nahi zaie gazteei eta horrekin batera, indibidualismoari aurre egin

TTIPI-TTAPA

«Gazteak gero eta indibidualistagoak gare-lako eta aisialdirako alternatibarik ez dugula ikusita» Ernadi Rock besta antolatu du Malerrekako Gazte Asanbladak azaroaren 5erako. Hasiera batean asmoa kontzertuak bakarrik egitea bazen ere, azkenean egun osoan antolatu dira ekitaldiak.

- 10:00etan argi soinuak.
- 11:00etan kamiseta sormen tailerra eta haurrentako jokoak.

Haurren jolas arruntez aparte, aurpegia margotzeko eta kamisetak egiteko tailerrak izanen dira. Haur bakoitzak bere kamiseta eramaneraz gero, gazteek marrazkiak paratuko dizkiete.

- 17:30ean kafea eta kopa dohainik.
- 17:00etan gazte olinpiadak. Herrika edo kuadrillak taldeak egin eta karriz karrika hainbat joko egingen dira, trikitalari, panderojole eta bertsolariekin.
- 19:00etan triki-bertso poteoa.
- 21:00etan afaria don Santa Luzia plazan.
- 22:00etan kontzertuak dohainik Santa Luzia plazan: Saguxar, Soñadores natos, Barniz por la nariz, Marianitoz blai eta Des-kontrol taldeekin.



ARGAZKIA: ONDIKOL

Futbol-zelaia estreinatu dute futbolariak

Azkenean estreinatu dute futbol-zelai berria. Urriaren 20an hasi ziren jokariak zelai berrian entrenatzen eta hilaren 22an lehenbiziko partidak jokatu zituzten. Erre-gional mailan ari direnak eta neskak aritu ziren larunbatean eta igandean alebinak. Inaugurazio ofiziala, berriz, abenduan egingen da.

Malerrekako binakako pilota txapelketan izena emateko epea zabalik

Malerrekako eskuz binakako hamargarren pilota txapelketan izena emateko epea zabaldu du Erreka elkarteak. Pilotariak lehen mailako benjaminetan, alebinetan, infantiletan, kadeteetan, jubeniletan, 22 urtez azpikoetan eta senior elite kategoriatan lehiatuko dira. Kategoria guzietan lehiaketa irekia izanen da, senior elite lehiaketan izan ezik, hemen pilotariak gonbidatu egingen baitituzte.

Bigarren urtez Diario de Noticias izena hartuko duen txapelketa kanporaketa bidez jokatu da eta 2012ko urtarril erdialdera hasita, otsaileko az-

ken asteburuan edo martxoan lehenbizikoan akitzea espero da. Federatutakoek azaroaren 13a arteko epea izanen dute izen emateko, horretarako salaa@gmail.com-era edo 948 450991 fax zenbakira idatzi eta telefonoa edo posta elektronikoa utziz.

Txapelketako partida gehienak igande goizetan jokatuko dira, asteazken arratsaldetan jokatuko diren batzuk izan ezik. Legasan benjamin mailakoak, Iruritan alebin mailakoak, Lesakan infantilenak, Donezteben kadeteenak, Beran jubenil eta 22 urtez azpikoak eta Donezteben seniorrenak.

Behobia-Donostia prestatzen

Azaroan egingen den Behobia-Donostia probaren atarian, lasterketa prestatzeko, Erreka

Kirol Elkartearen korrikariak Donostiako 15 kilometroko lasterketa egin zuten urriaren 16an. Xanti San Miguel, Alfredo Telletxea, Gorka Bi-

degain, Ion Apezetxea, Xabier Bañares, Felipe Ganboa, Miren Juanotena, Mikel Huarte eta Fermintxo Oteizak parte hartu zuten.

ZUBIONDO
Jatetxea
agardulagia jatetxea

Alata Karrika
BERA NAHARRA

BERA
Zure inguruak zure gustuak zuretzat (xamorro, zimorri, armiarra, kokoro...) eta zuretzat zuretzat garbitu nahi baduzu, dituzte Termite eta Pipien tratamenduak.

GOIENKO
Inbentarioa, Garrantzia, Irteerak

Tel: 948 632 057 • Zuzen, 40-4 • BERA

ARTEKARI TALDEA
ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

- Langile autonomoak
- Nekazariek eta merke langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-Kontratuaren laguntza
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta alorperak
- Eberritasun eta jubilazio espedienteak
- Bidegaitasun planak eta sumakortasun

www.artekari.com

ISSAKA: Siltiri, 77. behe - Tel: 948 637 050 - Fax: 948 637 050
BURLEATA: La Villo, 4 - Tel: 948 133 328 - Fax: 948 133 713

SUNBILLA

OSPAKIZUNAK → MALERREKA ETA BERTIZARANA

Bigarren urtez gure herrian egingen da sei eskola ttikien topaketa ortziral honetan

Tailerrak, jolasak, filmak eta otorduak izanen dituzte

Maidar PETRIRENA

Aurtengoarekin, bigarren urtez, Sunbillan ospatuko da Malerreka eta Bertizaranako sei eskola ttikien besta. Ortziral honetan, urriak 28, izanen da eta Beintza-Labaien, Ituren, Legasa, NARBARTe, Saldias eta

Sunbillako eskolek parte hartuko dute. Iaz Eratsungo eskolako lagunak ere besta honetan izan ziren, baina ikasturte honetan Nafarroako Gobernuak eskola ixtea erabakia du.

09:00etarako elkartuko dira sei herrietako eskoletako umeak Sunbillako frontoian. Eguna atal diferentetan banatua egonen da eta frontoian eskulan-tailerrak izanen



ARGAZKIAK: KARLOS BRAKO

Joan den urtean ederki pasatzeko aukera izan zuten neska-mutikoez eskolen topaketan.

dira eta Kulkiren esku-tik, herri jolasak, jokoak eta herri kirolak ere izanen dira. Hiru taldetan banatuta ariko dira. Udaletxean, berriz, filmak ikusteko aukera izanen da.

Topaketa honen iraupena eskola egun bat bezalakoa izanen da.

Frontoian gosaria, bazkaria eta akitzeko txokolatada izanen dute.

FRUTA GOBERNUTIK

Ikasturte honetan, eskolako Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako lehenbiziko mailako ikasleek hiru egunez Nafarroako Go-

bernutik fruta jasoko dute gosaltzeko. Aurten, Haur Hezkuntzako zaharrenak, Lehen Hezkuntzako lehenbiziko mailako talde berean daudelako ekarriko die azken horiei ere. Baina berez Haur Hezkuntzakoendako baino ez da proiektua.



Ba al zenekien...

Eurovelo proiektuaren barne, Larrakaitzeko twnela argitzen hasi direla? Hortaz, jendeak tentuz ibili beharko du.



MERCHE
MODA HOMBRE
Sempu Mujka, 11
20302 BUN
T. 943 612 626



CAPELETTI
Mendil Merkatel Zentrat
20302 BUN
T. 943 624872




NARBARTE

GIZARTEA → UDAZKENEAN SARTUTA

Urriarekin batera ehiztariak euren txokoetara joan dira

Garai honetan ohikoak ziren iratze metak desagertzen ari dira

TTIPI-TTAPA

Urria neguaren bezpera, gaztain eta iratzeak egiteko garaia dugu. Duela ez denbora aunitz, urtaro hau ailegatzerakoan Narbarte-ko mendien argazkia hagitx bertzelakoa izaten zen, mendia, iratze metaz estalita agertzen baitzitzaigun.

Gaur egun, ordea, internet eta sakeleko telefonoen aro berri honetan sartuta gaudenean, baserri pare bat baino ez



UTZITAKO ARGAZKIA

Narbarteko gazteak Enaburuko puesto batean uso ehizan.

dira gelditzen iratze pixka bat egiten dutenak.

Bertzalde, urria ehiztarien hilabeterik distiratsuen izaten da, eta gure herrian ehiztari asko dago. Basurde edo uso-

en atzetik jendea gustura ibiltzen da. Gosariak, bazkariak, afariak, «gezurtxoak»... Denak hainbeste jende mugitzen duen afizio honen barne sartzen dira.

Bilera Legasan

Kontzejuaren desagertzeari buruz, oraingo kontzejuak herri bilera antolatu du azaroaren 5erako, 15:30ean.

DIRULAGUNTZAK

Eskualdeko zenbait obra subentzionatu ditu Gobernuak

TTIPI-TTAPA

Zenbait obra finantzatzeko dirulaguntza emanen die Nafarroako Gobernuak eskualdeko udal eta kontzejuei. **Zugarramurdiko** Azketa, Azketaberri eta Bexkor karriketako zolaketak lanak direla eta Udalak 57.473 euro hartuko ditu eta Luku-berikoborda egokitu eta hobetzeagatik 19.850 euro. Hilerrian konponketa lanak egiteko ere laguntza hartuko da Zugarramurdin. **Sunbillako** Udalak 45.572 euro hartuko ditu; **Elgorriagako** Udalak 11.457 euro eta **Saldiasoko** kontzejuarentzat, 14.518 euro bideratuko dira.

ITUREN

EHIZA → UDAZKENEAN SARTUTA

Ehiztariak hasi dute denboraldia

Tiro hotsak entzuten dira mendian

Arkaitz MINDEGIA

Urria gainera etortzen zaigunean, ehiztariak beraien uso denboraldia hasten dute. Dagoeneko puestoak, eskopetak eta kartutxoak prestatu dauzkate. Urrian egiten ari den eguraldi politikin menditik tiro hotsak entzuten dira, baina uso-

ak pasako ote dira? Edo biligarroei botatzen ariko ote dira? Halere, denboraldia martxan dago, eta ea usoak pasatzen diren eta aurtengo sa-soia ona izaten den.

Maika txapeldun

Iturengo koxkor-biltzaile, laisterkari, aizkolari... Hainbat kiroletan aritzen den Maika Ariztegi berriz ere txapeldun izan dugu Euskal Herriko koxkor biltze txapelketan. Denetara lau par-



ARGAZKIAK: ARKAITZ MINDEGIA

Trikidantz Nafarroa Oinezekin

Aurten ere Trikidantz musika taldeak bere ekarpena egin dio Nafarroa Oinezi, musu truk kontzertua eskainiz. Tafallako ikastolak antolatutako bestan izan ziren urriaren 16an eta jendetza bildu zen euren kontzertura.

taide aritu ziren 50 koxkor biltzen eta Maika nagusitu zen. 2000. urte- tik txapeldun izan dan

iturendarra, parte hartu ez zuen urtean batean izan ezik, eta hamaika txapela dauzka soine-

an. Zorionak! Seguruenik orain ere zerbaitetarako prestatzen ariko da eta zorte on!

SAN MARTIN BESTAK → AZAROAREN 10ETIK 13RA OSPATUKO DIRA

Erasun eta Zalduaren arteko aizkora apustua jokatuko da egun handian

Herri bazkarian Julio Soto eta Sebastian Lizaso bertsolariak eta Joxeanjel akordeoilaria ariko dira



ORTZEGUNA 10 Bezpera

19:00etan txupinazoa eta **ondotik** herriko txistulariek eta trikitilariak herrian barna buelta emanen dute. Afaltzeko zopak izanen dira Aurtizko Ostatuan. **22:30ean** mus txapelketa jokatuko da Aurtizko Ostatuan eta gauerditik aurrera trikitipoteoa.



ARTXIBOKO ARGAZKIAK

Aurtengoan ere musika eta otordu artean joanen dira Aurtizko San Martin bestak, kirol kontuak atzendu gabe.

ORTZIRALA 11 San Martin Eguna

10:00etan dianak. **12:00etan** Meza Nagusia San Martinen ohorez. Meza **ondotik** aiz-

kora apostua: Erasun Zalduaren kontra. **Eguerdian** herri bazkaria Julio Soto eta Sebastian Lizaso bertsolariak eta Joxeanjel akordeoilariarekin. **Arratsaldean** dantzaldia Joxeanjelekin. **Gauean** rock kontzertuak.

LARUNBATA 12 Haurren eguna

10:00etan dianak. **11:30ean** haurren jokoa. **Eguerdian** haurren bazkaria Herriko Elkartean. **17:00etan** trikitixa jaialdia. **Gauez** gaupasa Txutxin Ibañez eta

Joxeanjel akordeoilariarekin.

IGANDEA 13

10:00etan dianak. **12:00etan** Meza Nagusia. **Ondotik**, Iturengo Ibiltza kultur taldeko dantzarien saioa. **Arra-**

KONTZERTUAK

Hurrengo alean zehaztuko dugu San Martin Eguneko kontzertua eskainiko duten taldeen izenak.

tsaldean, beste amaiera emateko kantaldia.

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA SARE SOZIALEAN



www.facebook.com/ttppi.ttapa

J.RAMOS
zolak akutxilatu eta barnizatzen ditut.

Sakelekoaz: 677 836 073 - LESAKA



ikusi-makusi
www.ikusi-makusi.net




Lehiaketaren oinarriak eta informazio guztia: www.facebook.com/ikusi-makusi-ivn

ORDUTEGIA: arratsaldeko 10:00-13:30 | 14:30-20:00
Erlan Pasealekua - Erdara Erakina | 20303 IRUN | 943 612 383

Herriko parte gure LEHAKETAN eta irabazi 50€ko GABOETAKO SARIA

ZUBIETA

OSPAKIZUNAK → URRIAREN 7AN ETA 8AN

Euskararen Egunaren aitzakian bi egun eder pasatu dituzte herritarrek

Gazteek aurreikusitako egitarau guztia bete da

Fermin ETXEKOLONEA

Eguraldiak sobera lagundu ez bazuen ere, giro ederrean joan ziren Euskararen Egunaren harira antolatutako bi egunetako ekitaldiak.

Bezpera ere ez zuten ekitaldirik gabe utzi gazteek. Pintxo lehiaketara hamaika partaide aurkeztu ziren eta guztien artean Lizartzako Iñaki Sanchez izan zen txapel-dun eta Elutsako Maialen Elizalde bigarren. Egun berean, Patziku Perurena idazleak eta Andres Iñigo euskaltzainak hitzaldia eskaini zuten eta interesgarria izan zen hau ere. 40 bat lagun bildu ziren. Mus txapelketa ere jokatu zen ostiralarekin eta honetan ha-

mabi bikote aritu ziren. Guztien artean, Joseba Juanikorena eta Martxel Elizalde izan ziren txapel-dun, eta Mikel Beltza eta Lopeko Juanto bigarren.

Larunbata izan zen egun nagusia eta goizean goizetik txistu eta joare soinuak zabaldu ziren herrian. Artisau azoka ere egin zen eta honetan hamaika lagun atera ziren: egur lanak erakustera Xanti Uhalde eta Migel Arregi atera ziren; Joxepa Loiarteren taldeko talogileak ere han izan ziren; okindegiko Karmelek ogiak eta eztiak aterazituen; Fausti Juanikorenak bere jantziak erakutsi zituen; Domintxeneko Maribel piper pilekin atera zen; Elizgaine-ko Lurdesi barazkiak eta etxeko produktuak ikusi genizkion; Andrew eta Itziar oihalekin egindako lanekin atera ziren; Iñaki Sanchezek birziklatutako gauzeekin eginda-



ARGAZKIAK: IZASKUN ZUBIALDE

Ez zen ekitaldirik falta izan Euskararen Eguna tarteko antolatu ziren bi egunetan.

ko irudiak erakutsi zizkion; Ainhoa Mutuberria eskulanekin atera zen eta Eva Elizaldek Gazte Gune-ko neska-mutikoen egindako lanak atera zituen plazara. Guztien lanak eskertzekoa da.

Aizkora apustua ere ikusgarria izan zen. Mikel Palaxio eta Joxeantonio Loiarre herritarrek kolpe pare batengatik ez zieten irabazi Leonardo Goñi eta Raul Kastrori.

Saio polita ikusita, kontent gelditu zen jendea.

Magra eta gaztaren pisura gehien hurbildu zirenak, berriz, Arantxa Mutuberria eta Joseba Aragon izan ziren, hurrenez hurren. Eta herri bazkarian, 90 bat lagun bildu ziren, Julio Soto eta Julen Zelaietarekin giro ederra sortuz.

Haurren talo tailerrak ere arrakasta izan zuen, 40 bat neska-mutiko el-

kartu baitziren. Tailer honetan, eskertzekoa da Lurdes Elizalde eta Anita Uhaldek egindako lana.

Herriko dantzarien saioa ere polita izan zen eta gaueko kontzertuek eta dantzialdiak ere ez zuten hutsik egin.

Guztia ongi joateko gazteek lan ederra egin zutela agerian gelditu zen, eta ea aurrera segitzen duen honek, egun polita baita herriarentzat.





Inportaziozko lehen kalitateko bakailu gaztius
Bakailu gezatua eta kongelaturia, erabiltzeko prest

Kalea 10 - Barria, 8 - 23. polioa - LESANA - Tfno: 948 631 536 - Fax: 948 631 600



PRIM, c.b.
Bizkortze Zentroa

- Kirol Fisioterapia
- Osteopatia
- Masaiak
- Trafiko istripuetan aholkularitza
- Istripu eta osasun aseguruak
- METODO BERRIA
- Umeentzako arnas fisioterapia

Itzea 1, behea • Tel-Fax: 948 625206 • BERA
Colón Pas. 6 - Itzea • Tel-Fax: 943 633050 • IRUN

BIDAIAK → IRAILAREN 29TIK URRIAREN 13RA

Arkupeak elkarteko 105 bazkide oporretan ibili dira Benidormen

Abenduan urte bukaerako besta eginen dute Donezteben

Fernando ETXEBERRIA

Arkupeak elkarteko 105 bazkidek Benidormerako bidea hartu zuten irailaren 29an, Irun eta Elizondotik abiatu ziren bi autobusetan. Helburua: hamabortz egunetako oporrez gozatzea.

Ohitura den bezala, hiru geldialdi egin ziren: bat Castejonon (Nafarroa) kafea eta pintxoren bat hartzeko, eta hurrengoan Darocan (Zaragoza, Espainia) bazkaltzeko. Han zeudela jakinarazi zieten Fenicia hoteletik, hurbileko hodi batzuetan izandako matxura tarteko, udaltzaingoak hotelera autobusean joa-



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

Egun atseginak pasatzeko aukera izan dute Arkupeak-ekoek Benidorm aldean.

teko sarbidea itxi zuela, eta hortaz, oinez edo taxian egin beharko zituztela azken 300 metroak.

Maletak furgoneta batean hurbiltzeko ahaleginak ere egin ziren, baina hiri guztian bat lortzea ezinezkoa izan zen. Azkenean, Pedro eta Mi-

guelek hoteletik ahalik eta hurbilen utzi zituzten bidaiariak.

Hirugarren geldialdia Pineda (Tarragona, Herrialde Katalanak) izan zen, eta hala, bidaiaria luzea izan arren, erramangarria egin zen. Behin Benidormera ailegatuta,

83 bazkide Fenicia hotelera joan ziren eta 22 Bristol hotelera.

Zentzu guztietan, egonaldia oso atsegina izan zen: hotelak hondartzatik hurbil daude, bietan zerbitzu ona eskaini zen, aukera zabalak jaterakoan eta kalitatekoa,

eguraldia eta tenperatura zoragarria eta elkarbitzita ezin hobea. Gisa honetara, egunak laburrak egin ziren, eta etxerakoan bi sentimendu nagusitu ziren: etxera bueltatzeko poztasuna eta nostalgia, lasaitasuna eta deskantsua bukatu zirelako.

Benidormeko egonaldien ondotik, hilaren 20an Lizarra eta Lodosara joatekoak ziren eta leerro hauek idazterakoan 170 lagunek emana zuten izena. Abenduan, berriz, urteko besta ospatuko da Donezteben. Hildako bazkideen aldeko mezaren ondotik, kiroldegian bazkaria eta dantzaldia izanen dituzte.

Azkenik, erran, Benidormedo Arkupeak-eko loteriaren dezimoren bat erosi dutenek ea poztasun bat izaten duten.

Abenduko Zubirako Eskaintza

EGUN BATZUETARAKO ATERALDIA

Eskaintza eta tokirik hoberenak deskonektatzeko

EUROPA	Onera eta Goxatza
5 EGUN / 4 GAU	
LONDRES	
H. Wedgewood ***	557 €
PRAGA	
H. Olympik Tristar ***	584 €
ISTANBUL	
H. Fuar ***	626 €
AMSTERDAM	
H. Tulip Ins Amsterdam Riverside ***	591 €

Etza gainera...

%5

Dtu.

INFORMAZIOA ETA ERRESERBAK: Estegaien 22, 48404, 31100 BERRA Navarra
 Tel: 948 621 300 - Email: bana.1205@viajesiberia.com
 Abenduaren 13tik irailaren 13ra bitarteko poztasun eskaintza. Abenduaren 13tik irailaren 13ra bitartekoak bakarrik dira. Galdutako diru zehaztasun. Erreserba egitearen kudeaketa gutxiak sartu gabe. 10€ % bako bako bako gehigarria irailaren 31 bitarteko egundako erreserba bako.

Bazkideen

VIAJES IBERIA

BEINTZA-LABAIEN

OSPAKIZUNAK → ITTUR-ONDO ELKARTEAK ANTOLATUTA

240 lagun inguru bildu ditu aurten zortzigarrenez egin den Urriruko Bestako aretze jateak

Giro ederrean joan da urriruko hitzordu handia

Amaia eta Arantxa

Nahiz eta eguraldi kaxkarrarekin hasi urriaren 8ko eguna, Beintza-Labaienen giro ederra izan zen egunez zein gauzez.

Goizean, Beintzako ostalariek 22. urtemuga ospatzeko hainbat ekitaldi prestatu zituzten: 11:00 aldera bertako nahiz kanpoko jendea herrira hurbiltzen joan zen. Aterpea beriturik ikusteko aukera izan genuen, baita estreinatuta berri zuten roko-dromoa ere. Saldiasoko talogilea plazan egon zen nahi zuenak taloa jateko eta ondoko postuan edariak eskaini ziren. Plazaren bertze aldean, mahai bat haurrendako marraz-

kiekin, eta bertan, ume eta heldu margotzen aritu ziren, gero paretan egindako lanak itxekiz.

Txalaparta jotzen ere bi lagun aritu ziren, eta herriko jendeak ere ikasketeko eta probatzeko aukera izan zuen.

Sorpresa prestatu ziguten hurbildu ginen guztioi, izan ere, Soriatik etorritako taldeak motozerraz egurrarekin iruditoak egin baitzituzten. Ikusmin handia sortu zuten egindako lanekin aritu baitziren.

ARRATSALDEAN GEHIAGO

Arratsaldean, aizkora apustua izan zen herriko bi hirukoteren artean: alde batetik, Etxeberria anaiak eta Peio Telletxea eta bertalde, Jose Luis Telletxea, Jacinto Etxekonanea eta Xabier Mindegia. Hamar korteko lana izan zuten aizkolariek.



ARGAZIAK: AMAIA MINDEGIA, IZASKUN BERTIZ ETA M^a ARANTZAZU ITURRALDE
Denek gozatzeko moduko ekitaldiak izan ziren Urriruko Bestan.

Hasieratik azkeneko momentura arte berdinduak egon ziren arren, Tito, Miguel Angel eta Peio irabazi zuten.

Gauean, 240 pertsona bat bildu ziren afaltzera. Urtero bezala, salda beroarekin hasi zen azeria eta ondotik, Rebekak bere lehenbiziko dantza saioa eskaini zuen jendearen ikusmina piztuz. Entsalada eta haragia au-

sarko izan zen, eta azken egunetan txartel aunitz saldu arren, jendea ase-ta gelditu zen. Aipatzekoa da, Jaimek eta Juan-txok erretako 180 kiloko aretzea bikaina zegoela. Postrerako gazta eta irasagarra jan ziren, Iruñeria eta ondotik, Rebekak bere lehenbiziko dantza saioa eskaini zuen jendearen ikusgarriak eta Frantxioren akordeo-

soinuak karpan bildutako jendea girotu zuten. Dantzaldiak giro ederrean 04:30 aldera arte iraun zuten.

Ittur-Ondo elkarteko batzordekideez gain, hainbat laguntzaile izan ziren Urriruko Besta aurrera ateratzeko lanetan. Antolatzaileak pozik daude egindako lanak emaitza ona izan duelako zortzigarren urtez.

APARAN, S.A.
ERIKOLALA eta ZURAK

- Metamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzomerak
- Ate aruntak eta sukaide mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagarrak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab.



Tel: 948 456 080
Fax: 948 450 334
DONEZTEBE

tipi-Itapa
ZURE LAGUNTZA BEHAR DU

15996

DOKUMENTU-POLITSA
Bil (lehen dena) 1000

1. Dokumentu politza
2. Dokumentu politza
3. Dokumentu politza
4. Dokumentu politza
5. Dokumentu politza
6. Dokumentu politza
7. Dokumentu politza
8. Dokumentu politza
9. Dokumentu politza
10. Dokumentu politza

HERNANDE TELLETxea
HET

ERAKUNTZA LANAK OIROKORREAN

Zeharbertzean
SUKARRAK, SOMARRAK...
AIZKORREAN
IERRAZAK, GARROK...

HT BERA (Nafarroa)
670 064 744
948 632 554
zibertellobasa@gmail.com

UDAL ETA KONTZEJUEKAKO HAUTESKUNDEAK → BIGARREN DEIALDIA

Eskualdeko borts herritan alkateak aukeratuko dituzte azaroaren 20an

Beintza-Labaienen ez da zerrendarik aurkeztu bigarren deialdi honetan ere

TTIPI-TTAPA

Gero eta guttiago gelditzen da azaroaren 20an eginen diren hauteskundeetarako. Egun horretan, Espainiako hauteskunde orokorrez gain, maiatzean zerrendarik aurkeztu ez zen udal eta kontzejuetan ere hauteskundeak izanen dira.

Eskualdean sei izan ziren maiatzean udala berri ez zuten herriak: Arano, Beintza-Labaiena, Donamaria, Elgorriaga, Ituren eta Urroz. Bigarren deialdi honetan ia denetan osatu dute taldea, Beintza-Labaienen izan ezik, eta hala, hemen ez dute udal ordezkariak aukeratzeko hauteskunderik izanen. Talde bakarra aurkeztu da denetan; Urrozen, ordea, bi, Urrozko Herria eta Herriko Alkartasuna, eta bakoitza hiru ordezkariekin.

URROZEN BI TALDE

Urrozen kasua aipatzekoa da. Izan ere, nor-

malean zerrenda bakarra aurkeztu izan da hauteskundeetara baina aurten bi.

Zerrendak aurkezteko epea hurbiltzen ari zela, Urrozko Udalak herri batzarra antolatu zuen zerrendari buruz solasteko eta ahal bazen zerrenda osatzeko. Urriaren 7an egin zen eta dozena bat lagun agertu ziren, baina itxuraz denez, inor ez zegoen prest zerrendan joateko. Hortaz, urriaren 10ean, bere garaian egin zen bezala, bozketak antolatu zen eta hila- ren 12an boto gehien zituzten borts lagunak udaletxera deitu zituzten. Bortzek baiezkoa erantzun zuten eta norbaitek gehiagok nahi ote zuten galdetutakoan bertze batek ere baiezkoa erantzun zuten. Alegia, sei lagun agertu ziren prest zerrendan joateko. Kontua da, ordea, borts hautagai baino ge-

ZERRENDARIK EZ

Bigarren deialdian ere, Beintza-Labaienen ez da zerrendarik aurkeztu udal berria osatzeko. Eta gauza bera gertatu da Legasa, Narbarte eta Oieregin. Kontzejurako zerrendarik ez da aurkeztu.

hiago ezin direla joan zerrenda berean eta hortaz, erabaki da bi talde osatzea, sei lagunekin.

ZERRENDA ITXIAK ETA IREKIAK

Donamarian eta Iturenen jakina da zein izanen den alkatea: Mikel Arregi Mindegia izanen da Donamarian, Herriarengatik taldeko zerrendaburua, eta Mari Jose Bereau Baleztena Iturenen, Bilduren izenean aurkeztua. Aranon, Elgorriagan eta Urrozen, aldiz, zerrendak irekiak dira eta hauteskunderen ondotik erabakiko da zein izanen den hurrengo lau urteetan alkatea.

KONTZEJUAK

Kontzejuetako ordezkariak izendatzeko hauteskundeak ere azaroaren 20an egitekoak dira, baina ez Narbarten, ez Legasan eta ez Oieregin ere ez zen zerrendarik aurkeztu. Hortaz, orain arte ardura hori izan dutenek segituko dute lanean, Nafarroako Gobernuak bertze borts ordezkari izendatzen dituen arte.

Gaiaren harira, Legasan bilkura deitu dute orain kontzejuko ordezkari direnek, kontzejuren desagertzeaz solasteko. Azaroaren 5ean izanen da, 15:30ean.

DONAMARIA

HERRIARENGATIK



Mikel

ARREGI MINDEGIA

2. Josu Jorajuria Bazterrika. 3. Idoia Arregi Azpiroz. 4. Iñigo Ezkurra Leonet. 5. Mikel Iriarte Antxorena. 6. Maria Teresa Urroz Oiarzabal. 7. Erik Sagardia Amiano.

ITUREN

BILDU



Mari Jose

BEREAU BALEZTENA

2. Jagoba Manterola Ruiz. 3. Marcelino Bazterrika Altxu. 4. Mikel Gereka Zelaia. 5. Maria Milagros Erregerena Vera. 6. Carmelo Aioroa Uhalde. 7. Pedro Jose Altxu Ariztegi.

ARANO

HERRI AIERRIZ

1. Xabier Legarreta Etxarri. 2. Jose Antonio Ruiz Miner. 3. Maider Ansa Zugarramurdi. 4. Ainhoa Ansa Zugarramurdi. 5. Maitane Sarobe Olaetxea.

ELGORRIAGA

ELGORRIAGA

1. Jose Ignacio Olazar Apeztegia. 2. Rosa Maria Ibarra Ibarra. 3. Juan Jose Perez de Arriluzzea Sagasti. 4. Juan Miguel Sukilbide Olazar. 5. Jose Martin Larralde Ibarrola.

URROZ

URROZKO HERRIA

1. Iñaki Juanena Santesteban. 2. Xabier Matxinena Maritorenna. 3. Francisco Jabier Urroz Telletxea.

ALKARTASUNA

1. Jesus Maria Ezkurrera Legazkue. 2. Xabier Mariezkurrena Agesta. 3. Ignacio Urroz Gragirena.



GOIZUETA

GIZARTEA → UMORE ONA ELKARTEAK ANTOLATUTA

Herriko jubilatuen eguna igande honetan egingen da

Kantuak, pilota partidak, bertso bazkaria eta abar izanen dira

TTIPI-TTAPA

Hilabeteko azken igandean, urriak 30, herriko jubilatuen eguna ospatuko da Umore Ona Elkarteak antolatuta.

11:00etan meza izanen da Lesakako koruak abestuta. Segidan kantu emanaldia izanen da eta ondotik, herriko pilotariak hiru partida jokatuko dituzte. 14:30ean bazkaria eskainiko zaie aiton-amonei, Xabier Legarreta eta Julio Soto bertsolarien konpainian.

Larre-erretzea

Mendiko larreak erretzeko baimen-eskaerak

azaroaren 30a baino lehen aurkeztu beharko dira, 13:30erako. Datu guztiekin eta sinaturik aurkeztu beharko da eskiera eta horrez gain, terenoaren eskritura osoaren kopia ere bai. Eskiera egiten duena eskrituran agertzen den pertsona bera izan beharko du. Planoen kopia bat ere aurkeztuko da, larrea erreko den lekua markatua duela eta katastro erreferentziarekin.

Talo jatea

Gazte Asanbladaren XX. urteurrena dela eta, azaroaren 12ko festaren atarian, talo jatea antolatu da ostiral honetarako, urriak 28. 21:00etan izanen da eta bingoa eta sorpresak ere izanen dira. Txartelak Amaiarenean daude, 12 eurotan.



ARGAZKIA: JOSE JABIER ETXEBERRIA

Maddalen baselizaren inaugurazioa

Bukatu dira Maddalen baselizako zaharberritze lanak, eta azaroaren 5ean, 11:00etan izanen den mezarekin batera, egingen da aldare berriaren bedeinkapena. Aurretik, goizean Umore Ona Abesbatzak aurrak abestuko ditu kaleetan barna eta meza ondoren, luntxa izanen da. Bestalde, parrokiak liburuxka kaleratu du horren inguruan, besteak beste, baseliza-ko obrak eta datu historiko eta artistikoak aipatuz.



ARGAZKIA: ROSA OLAIZOLA

Zazpi neska-mutiko eskola ttikian

Adur, Eñaut, Axel, Mattin, Elaia, Lorea eta Josuk ere hasi dute eskola ttikiko ikasketurtea. Rosa Olaizola hezitzailearekin tarte atseginak pasatzen dituzte egunero.



ARGAZKIAK: JOSE JABIER ETXEBERRIA

Umore Onako taldeen jaia

Pixka bat berandu bada ere, ezin aipatu gabe utzi irailaren 24an ospatu zela Umore Onako taldeen jaia. Pilota, futbito, dantza eta abesbatzako kideak kalera atera ziren. Kirol jarduerak pilota plazan eta kantak eta dantzak herrian barrena zabaldu ondoren, elkartean bukatu zen jaia ongi merezitako afari batekin.

ttipi-ttapa

pidakorri eberri bidaltzea nahi baduzu, datu telefono honetara.

(0034) 948 63 54 58 • www.ttipi.net

- Higo Euzko Herri 31€
- Koropa 50€
- Berberri 31€
- Amelak 31€
- Auzola 12€
- Ipar Euzko Herri 50€
- Lantza 15€

GIZARTEA → OHITURAK MANTENTZEKO ASMOAREKIN

Herriko festa giroari buruz hausnarketa egiten ari dira

Herriko aldizkarian argitaratzeko argazkiak bildu nahi dira, arbasoen bizimodua hobe ezagutzeko

Juana Mari SAIZAR

Gizakia, ohitura duen animalia omen da, eta hori egia da, baina ikusten da azken urteetan zer nolako aldaketak izaten ari diren gure gizartean, eta nabarmen gure herriko jaietan. Alde batetik ohiturak mantendu nahi dira, baina nola?

Horrek kezka sortu du, eta taldetxo bat, herrian mugitzen diren eragile guztiekin elkarrizketak egiten ari da, zer pentsatzen duten eta zer nolako hausnarketa egiten duten urtean zehar egiten diren jaiei buruz, Inauteriak, Sanpedroak, Euskararen Eguna... Festa horiek egiteko badira anto-

latzaileak, baina planteatzen ari dira dena denon artean egin beharra ote duten, jende gutxi lana egiteko prest, festetan parte hartzeko ere bai, festa bakoitzean betikoak disfrutatzeko..., suspertu nahi da eta herrian giroa piztu, saiatu, herriko gauzak herriarentzako egiten direla sinestarazi... Oraindik gelditzen da bidea egiteko eta hau nola bukatzen den jakinaraziko dugu aurrerago, hemen argazki batean ikusten da, zer nolako jendea biltzen zen dantza egiteko, zein dotore jantziak eta adin guztietakoak plazan... Argazki hau Leitzako etxe batean azaldu da, eta beharbada Aresoko etxeetan ere izango dira gisa honetakoak. Politia izango litzateke gure aurrekoek nola gozatzen zuten ikustea, nola lana egiten zuten, zer nolako tertuliak..., hitz batean gure historia berreskuratzeko modu ederra. Orain herriko aldizkaria egiten ari direla aprobetxatuz, hu-

rengo alerako nahi duenak parte hartu dezake, etxean dituen argazkiak ekarri eta denon artean elkarbanatzeko eta gozatzeko aukera izan daiteke, horrela gure arbasoen bizimodua hobeiki ezagutu dezakegu.

Dantzako bi argazkiak Pablo Feok utziak dira eta berari Ceciliak eta bestea ere Pablo Feok utzia eta berari Elosegik. Pablok bilduma osatu eta gero lana txukun egin nahi omen du horregatik berak dauzka argazkiak.



616 513 491

GARRAIOAK, ESKABAZIOAK, KONTENEDOREEN ZERBITZUAK

Kontenedoreak: 5 m³ - 7 m³ - 12 m³ - 30 m³

Mota guztietako hondakinak biltzen dira

Tel/Fax: 948 45 13 89
C/ Ametzia, 1 • 31740 Doneztebe (Nafarroa)

Eskalerat gaitia... ez da erropal/

Behetik

plataformak igogailu berriak auki berriak...

Azpegi-Itzi, 14 • T. 943 368 781 • 671 073 888
www.behetik.com

ttipi-ttapa - ZURE LAGUNTZA BEHAR DU

15996

DOKUMENTU-POLTSA

Hat (bateratu) zure erropal

• Dokumentuak zure erropalera
• Dokumentuak zure erropalera
• Dokumentuak zure erropalera
• Dokumentuak zure erropalera
• Dokumentuak zure erropalera

LEITZA

UDALA → ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

Igerilekuko ura eguzki plaken bidez berotzeko sistema jarriko du Udalak

Azaroaren 31rako bukatuak egon behar dute

TTIPI-TTAPA

Proiektu berritzaile bat darabil Udalak esku artean: igerilekuko ura eguzki plaken bidez berotzeko sistema bat jarri nahi du, hartara, tenperatura aldetik, ura ahalik eta gehien berotzeko. Erabiltzaileei «zerbitzu egokiagoa» eskaini nahi zaie horrela, eta bide batez, «energia garbiak baliatu proiektu berezituak egiteko». Halaxe baieztatzen digu Oier Eizmendi alkateak.

Sei eguzki plaka paratuko dira oraingo depuradoraren txabola gainean eta 18.941,05 euroko aurrekontua izanen dute lanek. Halere, Nafarroako Gobernuak %30eko dirulaguntza emanen du hori egiteko.

Lanak dagoeneko hasiak ez badira, laster hasiko dira. Izan ere, azaroaren 31rako bukatuak egon beharko dute. Aipatu, Serviterm enpresak egiten dituela lanak. Zerbitzu berriarekin uraren goxotasuna nolako den, berriaz, hurrengo urteko denboraldian ikusiko dute erabiltzaileek.

Apusturik ez

Oraingo apustua jokatuko gabe gelditu beharko du Josetxo Urrutiak. Harri kubikoarekin apusturako desafioa bota zuten, apustu jokatzailen pisu bikoitzeko harriarekin, hain zuzen. Edozein harri-jasotzailerik ez zion deia eta norgehiagokak abenduaren erdialdean jokatu nahi zuten, edo beranduen, urtea bukatu aurretik.

Urriaren 14an egin zuten hitzordua apustua jokatuko nahi zutenekin, eta Tolosako Kantabriko tabernara Urtzi Telleria azaldu zen. Ezin izan zuten, ordea, akordiorik itxi, ez baitzen adostasunik izan ez datetan, ez altxatu beharreko harriarekin ere. Badirudi, heldu den udan berriz ere helduko diotela erronkari, Urrutiak proposatzen duen harri kubikoarekin aritzeko ohitura gehixeago hartzen duenean Telleriak.

Jabier Tirapu saritua

Jabier Tirapu sortzez leitzarra den neuropsikologoak neurozientzia klinikoaren sari bat jaso du Neuropsikologiaren Partzuergo Nazionalaren eskutik. Sari honekin, neuropsikologiaren alorrean egindako ibilbide profesionala, ekarpenak eta ikerketa lanak aitortu nahi izan dizkiote.



UTZITAKO ARGAZKIA

Mendibilekoen ateraldiak

Mendibil Mendi Bizikleta Taldeak urriaren 12an hasi zuen denboraldi berria, Orreaga aldera egindako irteerarekin. Eguraldi bikainarekin, Orreagatik hasi eta Orbaizetako fabrikatik igarota, Harpeako leizera joan ziren. Hemendik Urkulura igo eta gero Orreagara itzuli. Guztira 40 kilometro dituen itzulia hamasei lagunek egin zuten. Hurrengo irteera azaroan egingen dute. Mendi Taldekoak ere ez daude geldirik. Hilaren 22an Mikologialdiaren barne, umeekin ateraldia egitekoa zuten Leitzaletan eta igandean Nafarroako Mendi Elkartearen Egutera joatekoak ziren San Adrianera.

Bazkideen hamalau baja eta hiru alta izan dira aurten ehiza elkartearen

TTIPI-TTAPA

Ez da uso denboraldi hasiera ona izan eta ehiztariak ez daude sobera konforme. Mendian omen dabilta, baina ez omen dute deus ere ikusi. Horrela adierazi zigun Joseba Aierdi Ehiztarien Elkartearen lehendakariordeak denboraldi hasieran. Joan den urteko sasoiaren ere ez zen sobera ona izan ehiztariarentzat, eta Aierdiren irudiko, «aurtengoa bide beretik hasi da, txarragoa ez bada...». Urtetik urtera «gero eta uso gutxiago» pasatzen direlakoan dago lehendakariordea, eta horren ondorioz, «jendea aspertzen ari dela» uste du.

Beharbada horrek ere izanen du zerikusia bazkideen bajaren gorakadan. Izan ere, urteetan bazkideen alta gehiago izan dira, baina iaiz baja gehiago izan ziren eta aurten ere berdina gertatu da. Aurten guztira, hamalau baja izan dira eta hiru alta.

Uso, basurde zein oilagorretan ibiltzen diren 400 bat ehiztariak osa-

tzen dute gaur egun elkartearen, eta horietatik 337 dira usoetan ibiltzen direnak. Joan den hilabete hondarrean egindako zozketarekin erabaki zen bakoitzak zein postu izanen duen denboraldi honetan.

JUNTA BERRITUA

Joan den maiatzean berritu zen Ehiztarien Elkartearen Zuzendaritza Batzordea. Aurretik karguetarako bultzatzaileak aurkezteko deialdia egin zen, baina inor aurkeztu ez zela ikusita, elkarrekin hitz eginez zortzi laguneko taldea osatu zuten orain zuzendaritzan daudenek. Horrela, hauek dira batzordeko kideak: Jose Miguel Largo Arraras lehendakaria da, Joseba Aierdi Barriola lehendakariordea, Fermin Lizarraga Larraz idazkaria, Dionisio Lazkano Villanueva diruzaina eta bokalaka Rafa Alkaraz Astigarraga, Juan Lara Genba, Jose M^a Alduntzin Perurena eta Agustín Arranburu Villanueva.

Alex Mugika saritua

Nafarroako Kaxula eta eta Ardoaren hamargarren astearen barne, kaxula lehiaketaren finala egin zen urriaren 18an Iruñean. Aurkeztu ziren plater ikusgarri eta dashtagarrien artean, Alex

Mugikaren tripaki eta ondo *fideuá* izan zen irabazlea. Epaimahaia- ren ustez, «originaltasuna, sormena, ausardia, testura eta zaporeen oreka» elkartu zituen sukaldari leitzarrek aurkeztutako kaxulak.

Bilgune Feministak deituta batzorra

Sarrio lantegiko emakumeen curriculum bilketari eta udako kontratazioei buruz, batzorra deitu du Bilgune Feministak ostiralerako, hilak 28. 19:00etan Aurreran.

GIZARTEA → AURTEN XIX. ALDIZ

Hamahiru jatetxek parte hartuko dute ehizari buruzko jardunaldi gastronomikoetan

Ortziral honetatik azaroaren 27ra arte menu bereziak dastatu ahal izanen dira

TTIPI-TTAPA

Baztan, Malerreka eta Bortzirietako hamahiru jatetxek parte hartuko dute aurten hemezortzigarren aldiz eginen diren ehizari buruzko jardunaldi gastronomikoe-tan. Bertizko Partzue-rgo Turistikoak antolaz-ten dituen jardueren ar-tean, ohikoa bihurtu den ekimena da eta ortziral honetan, urriak 28, eman zaie hasiera. Ortzi-raletik aitzinera, azaroa-ren 27ra arte, 28 eta 36



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Joan den urteko ehizari buruzko jardunaldi gastronomikoen aurkezpenekoa da argazkia. Orduan ere hamahiru jatetxek parte hartu zuten jardunaldi hauetan.

euro artean dabilzan menu bereziak eskaini-ko dituzte eskualdeko hamahiru jatetxek. Prezio horiei edariak, kafea eta BEZ gehitu behar zaizkie.

HAMAHIRU JATETXE

Hauak izanen dira ehizari lotutako menu-ak eskainiko dituzten ja-tetxeak: Almandozko Beola, Arantzako Bur-lada eta Aterpe, Bera-

ko Zalain, Donamaria-ko Benta, Doneztebe-ko Ameztia, Elbeteko posada. Etxalarko Her-riko Ostatua eta Ben-tak Hotela, Igantziko La Villa, Iruritako Olari, Le-

sakako Koxkonta eta Oizko Posada. Joan den urtean bezala, hamahi-ru jatetxe dira, horieta-tik bi berriak, Etxalarko Herriko Ostatua eta Bentak Hotela.

Aipatu, bertzalde, jar-dunaldi gastronomiko hauen hemezortzigarren edizioaren kartela ira-gartzeko irudia Diana Iniestarena dela, Erra-tzun bizi den artista ka-taluniarrarena, eta bo-degoi bat irudikatu due-la. Bere koadroa Lesa-kako Koxkontan ego-nen da ikusgai jardunal-di hauek irauten duten bitartean.

Menu osoak, prezio-ak eta jatetxeekin harre-manetan jartzeko tele-fonoak Bertiz Partzue-rgoaren web orrian kon-tsulta daitezke: www.consorciobertiz.org.

2011eko URRIAREN 28tik AZARAREN 27ra

<p>Donostia (948) 748 300 Donostia (948) 333 247 Donostia (948) 333 247 Donostia (948) 333 247 Donostia (948) 333 247 Donostia (948) 333 247 Donostia (948) 333 247</p>	<p>Donostia (948) 333 247 Donostia (948) 333 247 Donostia (948) 333 247 Donostia (948) 333 247 Donostia (948) 333 247 Donostia (948) 333 247 Donostia (948) 333 247</p>	<p>EHIZA XIX. JARDUNALDI GASTRONOMIKOAK</p> <p>ANTOLATZAILEA: BERTIZKO PARTZUERDGI TURISTIKOAK Lezama, Luruzko Zaitzak ETXENIKE OIEREDI (Antolatzailea) Tel. 948 33 22 22 / Fax. 948 33 22 75 bertiz@consorciobertiz.org www.consorciobertiz.org</p>
--	--	---

CARLOS GARAIKOETXEA ETXENIKE abokatua

Santiago, 39 2C | ELIZONDO
T. 948 581 448 | M. 430 364 811

ttipi-tratela

IPINGI %10 DESKONTUA

Egin zaitez **ttipi-ttapa**ren harpidedun

(0034)948 63 54 58

MENDI ostatua

Santiago 25
948 540 313
ELIZONDO

MENDIA

T. 948 453 060 | AMAUR
www.mendia.com

BAZTAN

UDALA → ASIGNAZIOEN GAIAREKIN EZTABAIDA

Gezurretan segituz gero neurriak hartuko dituela ohartarazi dio Udal Gobernuak NaBairi

Udal Gobernuaren hitzak deitoratu egin ditu NaBaik

TTIPI-TTAPA

Udal ordezkarien dietak eztabaidatzeko, irailan Udalak egin zuen ez ohiko batzarrak zer errana ematen segitzen du.

Udal Gobernuak (Bildu eta Ezkerra) bere garairan jakinarazi zuenez, 2008 eta 2010 artean hautetsien asignazioetan «irregulartasunak» izan ziren eta horiek zuzentzeko erabakia hartu zuen irailaren 20ko bilkuran Udalak, Bilduren, Ezkerren eta NaBai 2011ren botoekin. Horren ondoren, NaBai irailaren 20ko akta onartzearen kontra azaldu zen, asignazioen gaia aktan nola jaso zen ez zelako ados gelditu. Eta horri honela erantzun dio Udal Gobernuak: «irailaren 20an ez ohiko bilkura egin zen, eta Bildu, Ezkerra eta NaBairen aldeko bozkekin proposamena onartzea erabaki zen, egun horretan egindako ez ohiko osoko bilkuraren aktan eta grabaketan ageri den moduan. NaBaiko zinegotziak ez zuela proposamenaren alde bozkatu dio eta hori gezurra da».

Udal Gobernuaren arabera, «NaBaiko zine-

gotziak proposamenaren alde bozkatu ondoren, urriaren 3ko bilkuran, dieten bilkuraren akta onartu behar zelarik, alde batetik hanka sartu zuela erran zuen, eta bertetik, hori zuzentzeko, bilkuran ez zuela alde bozkatu erran zuen, eta ez zuela akta onartzen».

Dieten ez ohiko osoko bilkuraren inguruan, NaBaiko zinegotziaren tentsiaren informazioa eman zitzaioela dio Udal Gobernuak, «aztertu eta bere iritzia finkatzeko asiti askirekin. Orain dio ez zuela informaziorik izan». Eta horren harira, hautetsi batek «gezurrak erratea aski larria dela» iritzi dio Udal Gobernuak: «bere lan politikoa guztiz ezbaian paratzen du, bere gaitasun falta nabarmen utzi bidenabar».

NABAI-REN ERANTZUNA

Udal Gobernuaren adierazpenen aitzinean, NaBai 2011k «biziki deitoratzen» duela erranez erantzun du.

NaBairen erranetan, «tamalez ez da lehen aldian Bilduk eta Ezkerrak Gobernu Batzorde Udal organoaren izena Korporazioko zinegotzi baten aurka egiteko erabiltzen dutena. Gobernu Batzordea edozein udal taldek parte har dezakeen organoa izanik, eta bertan NaBai 2011 parte izanik,



UTZITAKO ARGAZKIA

Herrietako eskoletan ere murrizketen kontra

Nafarroako Gobernuak Hezkuntza publikoan egin nahi dituen murrizketen kontra protestan atera ziren urriaren 10ean herrietako eskoletako irakasleak.

UDAL GOBERNUA

«Pello Iriartek proposamenaren alde bozkatu zuen eta horren lekuko dira akta eta bilkuran zegoen Diario de Nafarroako kazetariaren berria».

NABAI 2011

«Eraso zital honekin Bilduk eta Ezkerrak estali egin nahi dituzte afera eztabaidatzerakoan izandako informazio falta eta hutsegite larriak».

ezin da inolaz ere onartu organo hau Udaleko gobernu osatzen duten taldeekin nahastea». Hori hala egiteak «argi erakusten du Udal antolaketa ez ezagutzen edo, bertzenaz, eta larriago, agintekeriazko jokamoldea».

NaBaik «izugarri larritzat» jo du «Udalaren izean Korporazioko zinegotzi baten kontra irainak plazaratzea. Errandakoa gertaeren isla fidela ez izateaz gain, Pello Iriarte zinegotziaren izen ona eta gaitasuna zikindu nahi da maltzurki». Kasuari dagokion neurriak hartzeko eskubidea badutela ere gaineratu dute.

Iriartek zinegotzien dietei buruzko bilkurako akta ez onartzearen inguru-

ruan, zera argitu nahi du NaBaik: «alde ez agertzeak ez du erran nahi kontra bozkatzeari, bada abstenitzeko aukera ere, kasu honetan izan dena». Bertetik, unanimitatea guztien adostasuna dela gogoraratu du: «Osoko Bilkurako bozketatik alde egin duten zinegotzien bozka, legez, abstentziotzat jotzen da. Hori gehitu behar zaio NaBai 2011ko zinegotziaren abstentzioa. Akordioak zazpi boto alde eta sei abstentzio izan zituen, hots, botoen %54 alde izan zen; ez %100».

NaBairen ustez, «eraso zital honekin Bilduk eta Ezkerrak estali egin nahi dituzte afera eztabaidatzerakoan izandako informazio falta eta prozedurazko hutsegite larriak; eta polemika faltsu baten gibelean ezkutatu nahi dute Baztango garapena sustatzeko proposamen gabezi absolutua».

UDAL GOBERNUAREN ERANTZUNA

NaBairen azken oharri berte batekin erantzun dio Udal Gobernuak. Batetik, Iriartek proposamenaren alde bozkatu zuela azpimarratu du berriz: «ez zen abstenitu», eta osoko bilkurako akta eta bilkuran ze-

goen Diario de Nafarroako kazetariaren biharan mureko berria horren lekuko direla oinarazi dute. Horren aitzinean, «gezurretan jarraituz gero, neurri politiko eta juridikoak hartzea behartuak egon gara» ohartarazi dio Udal Gobernuak.

Bertetik, Baztango garapenaren inguruan proposamenik ez egitea egotzi ondoren, «Baztan erreka zokorat eraman duen NaBairen aldetik horrelakoak aditza irri-garria dela» iritzi diote. «Udalaren kontuak kinkan utzi ondoren, eta hainbat obra burugabetan sosa purretan gastatu eta gero, –plazako eraikinean 800.000 euro baino gehiago, adibidez–, guztiz onartezina da kritika hau.

Oharrak Udal Gobernuaren izenean eginak direla ere argitu dute eta NaBaik gobernu honetan parte hartzeko gonbidapena ukatu zuela azaldu. «Bertze gauza da Tokiko Gobernu Batzordea. Hemen Udal Gobernuaren erabakiz, talde guztiak parte hartzea gonbidatu ziren eta NaBaiko zinegotzia kide da. Halere, NaBairi jakinarazten diogu edozein kasutan ateak zabalik daudela bai sartzeko eta bai ateratzeko ere».

KONTSEILUA → INTZA OSTATUAN SALDU DA ETA MAIKA MIÑANA IZAN DA SARITUA

Euskal Tonbolako furgoneta ekipatua Elizondon tokatu da

Abendura bitarte bertze hainbat sari banatuko dira

TTIPI-TTAPA

Aurten ere Euskal Tonbola paratu du Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak eskualdeko hainbat ostatuan, eta paratu orduko, sari potolonoetako bat banatu da. Izan ere, furgoneta ekipatua Elizondoko Intza ostatuan erositako txartel batean tokatu da, eta Maika Miñana izan da sariduna.

Urte batzuk badira Kontseiluak Euskal Tonbola martxan paratu zuenetik, eta urtetik urtera gero eta sorpresa gehiago eskaintzen ditu. Martxotik uda bitarte Gipuzkoako eta Bizkaiko ostaluetan egoten da eta irailetik abendura Araba, Nafarroa eta Ipar Euskal Herriko ostaluetan. Euro baten truke erosten ahal dira txartelak eta bi motatako sariak zozketatzen dira: alde batetik, sari seguruak daude, ostatu guztietan direnak. Horien artean aurten aipagarrienak hauek dira: sukaldeko robota, robot xurgagailua, DVD eramangarria, mp4a, gps-a, argazki kamara eta gosari tresnak...

Horietaz aparte, sari bereziak izaten dira, ostatu guztietan egoten ez direnak, eta lau ostalutik batean sari berezi bat sartzen da: furgoneta ekipatuak, auto hibridoak, moto elektrikoak, afariak, abionetan hegaldiak, telebistak, ardo sortak, Karibera bidaiak... Horien artean erakargarriena da, beharbada, Elizondoko Intza ostatuan tokatutako furgoneta. Baina halere, sari aunitz daude oraindik banatu gabe.

Herri eskola

Urriaren 12an, edo Hispanitatearen Egunean, Irurritako eskola zaharrean kurgintza eta herri langilearen eskolaren inguruko jardunaldia egin zen.

Bildutakoak kapitalaren eta kapitalismoaren inguruan aritu ziren. Hezkuntza ereduak ere hizpide izan ziren, eta honen barne, Bologna, British ereduak eta murrizketak aipatu ziren, bertzeak bertze. Eta irtenbide iraultzaileak ere mahaigainean jarri ziren eta deshazkundera eta ekosozialismoa proposatu ziren. Kurgintzaren bidez, herrigintza indartu behar dela ere adierazi zen, eta ikasleengan jarrera aktiboa bultzatu behar dela.

Baliteke abenduaren 6an ere berdina egitea.



ARGAZKIA: KONTSEILUA

Furgoneta Maika Miñanari tokatu zaio, Elizondoko Intza ostatuan txartela erositako. Argazkian furgoneta berriarekin ageri da, Gotzon Arenas Euskal Tonbolako kidearekin.



ARGAZKIA: WWW.NAVARRA.ES

Hezkuntza kontseilaria Almandozko eskolan

Jose Iribas Sanchez de Boado Hezkuntza kontseilariak Almandozko eskolara bisita egin zuen urriaren 14an, Nafarroako eskola eta institutuak hurbiletik ezagutzeko egiten ari den irteeren programaren barne. Irakasleekin bildu ondotik, ikasleekin ere mintzatu zen kontseilaria. Almandozera egindako bisitan, Garbiñe Elizegi alkatearekin eta Luis Roldan Almandozko alkatearekin egon zen, baita bertze udal taldeetako zinegotziekin ere.

Sutele-Zaldain
Instalazioak

IGOGAILUEN INSTALAZIOA
AROTEGI METALIKOA
TOLDOAK

Santiago, 71
31700 ELIZONDO
T. 948 580 166
F. 948 452 557
M. 619 424 999 - 649 699 820

BAZTAN

TURISMOA → AMAIURRI LEKUKOA HARTUZ

Heldu den urteko Errotaren Eguna Elizondoko Etxaiden eginen da

Hirugarren Errotaren Eguna Amaiurren egin da

TTIPI-TTAPA

2008an Zubietan eta 2009an Urdazubin egin ziren Errotaren Egunen ondotik, aurten Amaiurrek hartu du Errotaren Egunaren besta eta horixe ospatu zuten urriaren 9an, Udalak, Bertziko Partzuergo Turistikak eta Amaiurko Errotak antolatuta.

Bi helbururekin egin zen eguna, alde bateatik, Amaiurko eta Baztango ondarea ezagutzera emateko, bereziki Amaiurko Errota, eta

bertze aldetik, bisitariari egun atsegin bat pasatzeko aukera eskaintzeko, herriko ondareaz eta historiari disfrutatuz. Hala, egun osoko egitaraua prestatu zen: artisautzaz azoka, bisita gidatua, Amaiurko Gazteluari buruzko hitzaldia, taloak... Interesa piztu zuen egunak eta hainbat eta hainbat izan ziren hilaren 9an Amaiurrera hurbildu ziren bisitariak.

Amaiurrek Elizondori pasatu dio lekukoa, eta hortaz, heldu den urtean, Etxaiden eginen da Errotaren Eguna. Horren erakusle, Felipe Oiartzabal Amaiurko errotako kudeatzaileak Santiago Ballarena



ARGAZKIA: ONDIKOL

Amaiurko Errotako kudeatzailea den Felipe Oiartzabalek Santiago Ballarenari eman zion lekukoa, Etxaide errotako arduradunari. Julian Rekalde Amaiurko alkateak bertatik bertara jarraitu zuen lekuko aldaketa.

Etxaideko errotako arduradunari eman zion lekukoa.

Solasaldia hondakinen inguruan

Hiri hondakinen inguruan solasaldia antolatu du Aroztegia eta gerrozer? plataformak Sustrai erakuntza eta 3R-en kolektiboko jendee-kin (*colectivo 3 Rs, reducir, reciclar, reutilizar*).

Nafarroan onartu berri den hiri-hondakinen planaren inguruan ariko dira; zaborren gaia ere era orokorrean aztertuko da, egon daitezkeen alternatiba desberdinak aurkeztu bidena- bar. Halaber, solasaldiak Sustrai erakuntza aurkezteko balioko du. Fundazio hau lurraldearen eta inguruaren defentsan aritzen da aholkularitza tekniko eta juridikoa eskainiz. Ber-

tzeak bertze, AHTaren aurkako alderdi juridikoa eramaten ari da Nafarroan, Sakanako mankomunitateak Nafarroako hiri-hondakinen planari aurkeztu dizkion helegiteak fundazio honek kudeatu ditu eta Aroztegia eta gerrozer? taldeari ere aholkularitza eskaini izan dio.

Solasaldia azaroaren 3an izanen da 20:00etan Arizkunenea Kultur Etxean.

GRUPO TANATORIO TALDEA

IRACHE

MALDAERREKA S.L

24 ORDUKO TELEFONOA

948581959 | 948637404

LEKINGIEIRI | BERRA (SAN JOSE) | LESAMA | ELIZONDO (BAZTAN) | LETTZA | BÉTELU
DORREZTEBE (SAN PEDRO) | ELIZONDO (BAZTANDARRA)

- TRASLADOAK IRUÑA, DONOSTIA ETA IRLUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA -
- LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK, ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK -

UDALA → ELIZONDOKO SAIHESBIDEA

Saihesbiderako materiala ateratzeko desjabetze akordioa sinatu du Udalak

Gaiak eztabaida piztu du talde politikoen artean

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuko Sustapen Sailak eta Udalak Elizondoko sai-hesbiderako materiala ateratzeko Irurita-Ohar-ritz inguruko lur sail baten desjabetze hitzarmena sinatu zuten urriaren 17an. Sail honek lehen-dik desjabetua zegoen bertze bat osatzen du.

Espropiazio honen inguruan, NaBaik adierazi du «Bilduk eta Ezker-rrak porrotak garaipe- nak bezala saltzen dituztela» eta lehengo korporazio-ak lur horien truke lortu zituen kontrapartidak non gelditu diren galdetu du.

NaBairen arabera, ait- zinezko Udal Gobernuak lur berdinen okupazioa negoziatu zuen, eta trukean hiru obra lortu ziren: Elbeteko hilerri- rako bidea asfaltatzea, Leka- rozko frontoitik baserrie- tarako bidea asfaltatzea eta Iruritako hiltegitik hur- bil dauden etxebizitzeta- rako bidea asfaltatzea. NaBaik dio, «Bildu, Ezke- rra eta zenbait herrieta- ko alkateren estremo-aren ondorioz» galdu direla kontrapartidak eta hori «ezkutuan» gorde izana ere leporatu dio Udal Gobernuari.

«Derrigorrezko des- jabetzea akitu da, Bilduk eta Ezker-rrak onartu egin behar izan dute eta hiru

kontrapartidak galdu egin dira». Horrela labur- bildu du NaBaik.

Salaketa horiei hone- la erantzun die Udal Go- bernuak: «NaBairen es- kumen eza nabarmena, Udala egoera kaotiko ba- tean utzi duen aitzineko urteetako bailararen ku- deaketaren autokritika egiteko erabateko ezinta- suna berriz ere albiste- a da Elizondoko sai- hesbi- deari buruzko oharrean».

Berriz ere NaBaik be- randu ailegatu dela eta ez dela enteratzen dio Udal Gobernuak eta «oharrean aipatzen du- ten ebazpena, non ait- zinezko alkateak Oharri- zko lur komunal baten ustia- keta baimendu zuen, Ba- tzar Nagusiaren eraba- kitzeko ahalmenaren usurpazio nabarmena» izan zela dio. Orain, ebaz- pen horren inguruko kon- trapartidak aipatzen di- renean, «NaBairen oha- rraz aparte, inon ez da akordio horren berririk eta kontseilari berriak ere ez du aitortzen. Aldiz, ait- zinezko Udalaren jardue- rak bai baimendu zuela enpresak materiala do- an ateratzea», dio gober- nu taldeak.

Orain arte, Oharri- zko harrobiagatik «sos bakar bat ere ez» dela sartu Udalean ere gaineratu du Udal Gobernuak, eta «urriaren 17an sinatu zen erabakian, alde batetik, eskumena duen orga- noaren onarpena du, hau da, Batzar Nagusiarena eta gainera, Udalak na- hitaezko desjabetzaren-



UTZITAKO ARGAZKIA

Irakasleak murrizketen kontra mobilizatuak

Nafarroako Gobernu-ko Hezkuntza Departam- entuak aurreikusitako murrizketen kon- tra, irakasleek protestan segitzen dute. Hilaren 20rako paroa deitua zegoen eta Eli- zondoko San Francisco Javier ikastetxe- ko eta Lekaroz eta Lanbide Eskola publi- kiko irakasleak eta gurasoak kontzentra- zioa egin zuten Elizondoko plazan, ordu bateko lanuztea eginez. Aste honetarako, mobilizazio gehiago iragarriak dira: aste- artean, urriak 25, 12:00etan Beran Toki Ona institutu parean eta 12:15ean Elizondo- ko plazan mobilizazioak egitekoak dira eta ortzegun-ean 10:00tan aterako dira.

gatik tasatutako prezioa kobratzeko aukera eman- nen du, eta honetakoan bai, idatzita dago».

LEKAROZKO ALKATEAREN OHARRA

Jesus Angel Garcia Lekarozko alkateak ere oharra kaleratu du. Dio- nez, «otsailean Oharri- zko auzokideek idatzi bat si- natuta eman zidaten, ha- rrobiaren leherketek etxe batzuetan eragiten ziren kalteak salatuz. Idatzia sinatu eta udale- txeko erregistroan sartu nuen, informazioa eska- tu bidenabar». Martxoan herrietako alkateek gai- az solasteko eskatu omen zuten, eta «NaBaik zinegotziek trabak ja- rri zituztela» azaldu du.

Gobernuarekin egin- dako bileran, herrietako alkateek orain NaBaik aipatzen dituen kon- trapartidak eskatu zituz- tela argitu du Lekarozko alkateak: «Gobernuko- ek ez zuten ez baietz, ez ezetz erran eta akordio- ren batera ailegatuz ge- ro, idatzizkoa izanen ze- la argitu zuten. Idazki hu- ra gaur egun ez da exis- titzen». Gisa berean, or- duko alkateari Herri Lan Zuzendariarekin bilera eskatu omen zion Gar-

ciak, Lekarozen sai- hes- bidea gurutzatzeko oi- nezkoendako biderik ez zegoela- eta, zerbait egi- teko. «Alkateak bilerarik eskatu ez, eta nire alde- tik eskatu nuen. Apirila-

ren 29an izan zen; Gober- nuak ez duela konpen- tsatzen erantzun zuen, desjabetu baizik». Na- Baik lortu zituela dioen kontrapartidak non dau- den galdetu du Garciak.

ESTIBALIZ

estetika zentrua

DEPILAZIO IRAUNKORRA
LIGTSHERR DIODO-LASERRAREKIN

Emokumearen gorputz osorako
eskaintza berezia 350€
(horripilaketa, ghorripilaketa, baxurpilaketa)

Gizonaren gorputzerako
eskaintza berezia 490€
(horripilaketa, ghorripilaketa, baxurpilaketa)

Itzerrendoa eta besapeak 120€

Hanka erdiak 150€
Ezpaingaina 30€

Prezio gehiago jakiteko informazio zailak konpromisoik gabe

T. 948 581 360 | 606 738 466
Kalebidea, 14 - ELIZONDO | Zuzenbidea, 6 - DONEZTERRA

BAZTAN

IKASTAROAK → UDAZKEN HONETAN EGINEN DIRA

Adin guztietako jendearendako hainbat ikastaro antolatu ditu Udalak

Izena emateko Arizkunenea Kultur Etxera deitu behar da

TIPI-TTAPA

Haurzein helduendako hainbat ikastaro paratu ditu martxan Udalak udazken honetarako. Gisa aunitzetako ikastaroak dira eta Udalak jakinarazi duenez, Baztango edozein herritan eskatutako ikasle kopurua betekoko balitz, ez litzateke arazorik izanen ikastaroa Elizondo ez den herriren batean egiteko.

PAILAZOAREN ESENTZIAREN BILA

Pailazoaren esentziaren bila izenburupean helduentzako ikastaroa egingen da azaroaren 26an eta 27an, Laura Lopez irakasle dela. Ikastaroaren iraupena hamar ordukoa izanen da. Guttienez zortzi eta ge-

hienez hamabi ikasle onartuko dira eta Baztanen erroldatuak direnek 42 euro eta ez daudenek 63 euro ordaindu beharko dituzte. 10:00etatik 13:00etara eta 16:30etik 10:30era izanen da.

MARRAZKIEKIN JOSTETAN'

5-8 eta 9-14 urte bitarteko neska-mutikoen dako *Marrazkiekin jostetan* ikastaroa hasi du Begoña Durrutyk aste honetan eta abenduaren 14ra bitarteko asteazketan bilduko dira, 16:30etik 17:30era talde bat eta 17:30etik 18:30era bertzea. Erroldatutakoek 15 euro eta ez daudenek 20 euro ordaindu beharko dituzte.

SCRAPBOOKING

Helena Xurio arduraturako da *Scrapbooking* ikastaroak emateaz. Datat oraindik zehaztuak ez badaude ere, ikastaroetako bat larunbat batean emanen da 09:30-

ELIZONDOTIK KANPO

Eskatutako ikasle kopurua betekoko balitz, ikastaroa Elizondo ez den bertze herriren batean egiteko arazorik ez litzateke egonen.

etik 14:30era eta 15:00etatik 18:30era eta bertzea hiru egunez, 10:00etatik 12:30era astelehena, asteazken eta ortziral batez. Baztanen erroldatuek 40 euro ordaindu beharko dituzte eta ez daudenek 60 euro. Materiala prezioaren barne dago. Talde bakoitzeko guttienez zortzi ikasle eta gehienez hamabi hartuko dira.

MATERIALEKIN JOLASEAN, KONPLEMENTOAK SORTU

Izenburu hori duten bi ikastaro eskainiko ditu Amaia Zinkunegik ortzegun honetatik, urriak 27, aitzinera, ortzegunero. Zortzi saiotan 16 ordu

eskainiko dira eta talde bat 10:00etatik 12:00etara eta bertzea 17:00etatik 19:00etara ariko da. Guttienez hamar ikasle eta gehienez hamabortz hartuko dira eta Baztanen erroldatuentzat prezioa 34 eurokoa izanen da eta erroldatuak ez daudenentzat 40koa.

ORDENAGAILUZ MUSIKA TAILERRA

Ordenagailuz egindako musika tailerra (Ableton Alive) ere antolatu du Udalak, Aitor R. Larrinaga irakasle dela. Azaroaren 5etik abenduaren 2ra bitarte hiru orduko hamabortz saio egingen dira, larunbatetan, 10:30etik 13:30era. Guttienez hamar ikasle eta gehienez hamabortz ikasle hartuko dira eta erroldatuek 45 euro eta erroldatu gabekoek 68 euro ordaindu beharko dituzte.

POSTA ELEKTRONIKOA ETA INTERNET


Internet gero eta toki gehiago hartzen ari den honetan, hasi berriendako posta elektronikoa

erabiltzen eta Interneten nabigatzen ikasteko aukera ere izanen da, Eskiz-ekin. Guttienez zazpi eta gehienez bederlatzi ikasle onartuko dira eta azaroaren 20tik abenduaren 2ra astelehen eta ostiraletan bi orduko hamar saio egingen dira (10:00-12:00). Erroldatuendako prezioa 58 eurokoa da eta ez daudenendako 88 eurokoa.

ARGAZKIGINTZA DIGITALA

Hasi berriendako argazkigintza digitalari buruzko ikastaroa ere paratuko da martxan, Estibaliz Alvarezekin. Guttienez hamar eta gehienez hamabortz ikasle onartuko dira eta azaroaren 12an 10:30etik 14:30era eta 16:30etik 20:30era izanen da eta azaroaren 13an 10:30etik 13:30era. 30 euro ordaindu beharko dituzte erroldatuek eta 45 euro gainerakoek.

Izen-ematea zabalik dago eta informazio gehiago nahi izatera Arizkunenea Kultur Etxerat deitu behar da: 948 581 229.



ARGAZKIAK: ISABEL GAMIO

Animaleko lekak eta onddoa Erratzun

Zerbait berezia edukiko dute Erratzuko lurrek. Ez baita batere ohikoa horrelako aleak ikustea. M^a Carmenek baratzean 60 eta 80 zentimetroko lekak bildu ditu, eta Enekok 800 gramoko onddoa bilatu du.



BAZTAN-ZUGARRAMURDI



Txapelketako parte hartzaileak.

KIROLA → TXAPELKETAREN LEHENDABIZIKO EDIZIOA

Emakumezkoen frontenis txapelketako sariak banatu dira

Idoia Gillenea eta Garbiñe Elizegi izan dira txapeldunak

Idoia Gillenea eta Garbiñe Elizegi izan ziren txapeldunak eta Enara Mitxelorena eta Karmenxu Elizegi azpitxapeldun gelditu ziren. Txapelketako sari banaketa urriaren 14an egin zen eta ondotik, parte-hartzaile guztiek elkarrekin afaldu zuten Txokoton.

TTIPI-TTAPA

Txokotoko besten barne, emakumezkoen lehendabiziko frontenis txapelketa jokatu zen.

AZPIEGITURAK → ZOLABERRITZEAK

Berriki egindako lanen egoera ikuskatu du Toki Administrazioako zuzendari nagusiak

Azketa, Bexkor eta Azketaberri karrikak eta Lekuberriko bordako bidea zolaberritu dira



Jesus Mari Agerre alkatea eta Jose Luis Izco, Toki Administrazioako zuzendari nagusia.

TTIPI-TTAPA

2009-2012 Toki Inbertsio Planaren barrenean Zugarramurdin berriki egin diren lanen egoera ikuskatu zuen urriaren 18an Jose Luis Izco, Nafarroako Gobernuko Toki Administrazio Departamentuko zuzendari nagusiak. Lan hauek egiteko 333.000 euroko inbertsioa behar izan da eta Nafarroako Gobernuak 244.000 euro ordaindu ditu. Jesus Mari Agerre alkatea lagun izan zuen Izco lanak bisitatzerakoan.

Azketa, Azketaberri eta Bexkor karrikak zolaberritu dira, hormigoia botaz eta maila berean espaloirako harlauzak jarrit. Horretaz gain, hari-lubetei eusteko paretak eta itxidurak egin dira zurezko posteekin eta 1,20 metroko sare metalikoarekin.

Zuzendari nagusiak Lekuberriko bordako bidean egindako hobekuntza lanak ere ikuskatu zituen, baita hile-

rriko zati baten hondakin-uren kanalizazio lanak ere.

Udalen finantziarioaren inguruan ere solastu zuten bi ordezkariak, baita herrietarako transferentzietan aurrikusitako murrizketak ahal den neurrian ttikitze berriki Nafarroako Gobernuak eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak (FNMC) sinatutako hitzarmenaren inguruan ere.

60 años
Cama Cuadra
Zure erosketarengatik urteurreneko oparia

Edredoi fundak eta nordikoetan espezializatuak

edredoi fundak · edredoi nordikoak · ohe estalkiak · albornozak
maindireak · mantelak · kuxinak · toxailak

Tafalla, 13 • IRUÑEA • 948 230 634



TTIPI TXARTELArekin BETI IRABAZTEN DA!

**DESKONTUAK | ZOZKETAK
ALDIZKARIA MUSUTRUK**
Eskatu zurea 948 63 54 58 telefonoan

552. ALEKO IRABAZLEAK

*** MARTIRO LÓTEA**

M^o Joseba GILKANTZ MANDRIBI | ARGELAN

*** TARTTALO 2 LIBURU**

ERIKABE | JEANNE GARMENDIA TAPIA | LESAMA
FANTASIAKORAK | NEREA IRIGORRI ERANDONIA | BERRA

*** ONIMART KAMISETA**

BEA MARTIN IRABIA | ELIZABERRA

*** SUTZINTZA ESKOLA PUNPALAPLAN CD + DVD**

M^o Carmen IRIGORRI LEBIANDI | OLANZTZE

*** TTIPI SASKIA**

M^o Carmen ELIZAGORRI ETXERRA | ELLAIA



2 LAGUNENDAKO OTORDUA
Ditzko Posada
www.posadaditz.com



AQUARIUM 2 SARRERA
Donostiako Aquarium-a
www.aquarium.com



2 LIBURU
Elkar argitaletxea
www.elkar.com



GU TA GUTARRAK CDa
Lanku argitaletxea
www.lanku.com



KAMISETA BAT
Endo ta punto
www.endopunto.com



PIRATAK DVDa
Pirritx, Porrotx eta Marinetots
www.kafixporreta.com

DESKONTUAK



KULTURA → ZAZPIAK BAT DANTZA TALDEAREN ESKUTIK

‘Oroitzapenetik bidaiarat’ ikusgarria hirugarren eta azken aldiz taularatuko da azaroaren 12an

Herriko kiroledegian eskainiko da

Joana GUERENDIAIN

Azaroaren 12an *Oroitzapenetik bidaiarat* ikusgarriak hirugarren eta azken emanaldia emanen du kiroledegian, 20:30ean.

Ikusgarri hori Zazpiak Bat taldeko dantza taldeko partaide batzuen ideia originala da eta irabazi guziak Integrazio Batzordeari emanak dira. Ikusgarri honek arrakasta polita izan du Saran baina baita Luhuson ere.

Tokiak aitzinetik erosten ahalko dira Herriko Etxeko Edantegian, Pleka trinketean eta Turismo Bulegoan. Helduentzat 10 eurotan eta haurrentzat 6 eurotan. Egun berean salgai izanen dira, baina ordu bat lehenago etorri beharko da.

BILTZAR NAGUSIA

Irailaren 30ean Zazpiak Bat dantza taldearen biltzar nagusia iragan zen. Bilkura horretan bilan finantziarioa aipatu zen baina baita *Oroitzapenetik Bidaiarat* ikusgarriaren bilanoa ere. Lehendakaria beti Delphine Goyeneche da eta aurtun 80 partaide dira, haur eta helduak nahasiz.

Astelehen arrats guziz kurso bat proposatu da helduentzat, lehen urrats bat, larrain bezalako dantzak eta mutxiakoak ikasteko. Bertalde, bi aldiz hilabetean bada berze kurso bat baina janeko dantza egin dutenentzat da, helburua izanki dantzak berrikustea eta elkartzea une goxo baten pasatzeko.

60 urtekoen bazkaria

1951ean sortu diren pertsonak, Saran sortua edo Saran bizi dena, gon-



ARGAZKIA: GOIKO

Uso besta arrakastatsua

Uso besta karietarat, jende multzoa etorri zen pilota eta dantzak ikustera. Erran behar da denborak ere ateratzeko gogoia ematen zuela. Usotegiaren bitartek 25 pertsona bildu zituen eta aski ongi atzeman zuten. Eguerdian herriko jatetxeak beteak ziren. Andra Mari koruaren kontzertuak 350 lagun bildu zituen eta ondotik antolatua zen aperitifa giro onean pasatu zen, eta berant arte. Turismo Bulegoak eta Herriko Etxeak laguntzaile guziak eskertu nahi izan ditu.

bidatuak dira beraien ezkonkidearekin bazkari batera. Azaroaren 5ean egingen da Pullman Jate-txean; eguerdian. Izena emateko azken eguna urriaren 30a da, honat deituta: T. Barandiaran: 0559542260 edo P. Goyeneche: 0559475017.

Kukusoko haragi salmenta

Aurélie Berasategi herriko neska gazte bat bere kondu ezarri da idiki salmentan. Zortzi kilo-paketak proposatzen ditu, hainbat haragi motarekin: xerra, txerri azpizuna, entrekota, idia... ki-
loa 13 eurotan.

Proposatutako produktuak hazkuntza garbi batetik heldu dira, animalia eta naturaren errespetuan. Abereak udan mendian haziak dira eta neguan, berriz, Kukusoa baserrian, lau urte arte atxikiak dira, gero hiruzpalau hilabetez gizenduak dira, hiltzera eraman aitzin.

Heldu den saltzea azaroaren 10ean egingen da, eta paketa etxeetan banatzen du. Aitzinetik paketak erreserbatu behar dira ondoko zenbakira deituz: 0632730735 edo mail bat idatziz helbide honetara: *ferme.kukusoasfr.fr*.

Bertsu afaria

Olhain ikastolak bertsu afaria antolatuko du azaroaren 5ean.

Kirol emaitzak

Urriaren 9an Urtxin-txak bizkorrean ziren eta beren lehen garaipena ezagutu zuten Bokaleko taldearen kontra, 24-15 irabaziz. Urriaren 16an Makean aritu ziren eta hor ere irabazi zuten, 18-10. Agian horrela segituko dute. Eta errugbilariak urriaren 9an Kanboren kontra aritu ziren, baina galdu egin zuten, 12-11. Halere, azken momentu arte lotu ziren. Bi asteburuz ez dira ariko.

MONTXO OSTIVU

**ТАВЛКО-ДЕНДЛ
АНЗЛН-БОРДЛ • УРДЛЗУВЛ**
Egunero irekia 10:30etik 02:30ora.

LESVAIN
ESTABLISSEMENT
CAFFÉ DE LA MAIRIE
LESVAIN
CASA

BRANDONNEA, S.L.
BILTEGIA 948 630 102 • FAUSTINO 647 810 152
Bidasoa, 76 - afoa 21-22 • 31780 BERA

ARMUA JATEXEA
ARMUA

ERREKALDE
PLAZA
TAFOLA 948 630 259 BERA

GIZARTEA

GIZARTEA → BORTZIRIETAN ZABALDU NAHI DA

Boluntarioak bereganatzeko sentsibilizazio kanpaina abiatu du Elkarrizan taldeak

Behar zaitugu, behar gaituzu izenburupean

TTIPI-TTAPA

Elkarrizan bolondres taldeak boluntario gehiago lortzeko sentsibilizazio kanpaina abiatu du *Behar zaitugu, behar gaituzu* izenburupean. Genero perspektibatik, gizonetzakoak ere animatu nahi dituzte boluntario izatera, gaur egun dituzten 40 boluntarioetatik hiruzpalau bertzerik ez baitira gizasemeak.

Bortzirietako Oinarizko Gizarte Zerbitzuen bidez egiten da tal-

dearen kudeaketa eta etxeetan eta adineko egoitzatan lagundu, ezintasuna duten elkarteko aisialdi jardueretan parte hartu, helduak alfabetizatu, haurrei etxeko lanetan lagundu edo ospitaletan laguntzen aritzen dira. Beti ere «norberak duen denboraren arabera», urriaren 19an prentsaurrean jakinarazizutenez. Jokin Apeztexea Bortzirietako Gizarte Zerbitzuetako teknikariarekin batera, Marian Biurrarena Elkarrizane ko koordinatzailea eta Alfonso Obeso, Pakita Urtizbera, Marixabel Zugarramurdi, Amaia Huar-



ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

Bortzirietako Gizarte Zerbitzuetako teknikaria eta Elkarrizan elkarteko boluntarioak.

temendia, Fernanda Alzuguren eta Kontxi Iñariga boluntarioak izan ziren agerraldian. Denak ados azaldu ziren: «Boluntario izateak kentzen dizuna baino aunitzez gehiago ematen dizu».

Zailtasun ekonomikoak dituzten haurrei etxeko lanetan laguntzeko eta helduak alfabetizatzeko lanetan ere ari dira. Irakasle lanean ari den Kontxi Iñariga aipatu zuenez, «helduekin astean bitan elkartzeko gara eta esperientzia hagitz aberasgarria da, nahiz eta

zailtasunak dituzten hizkuntzarekin. Haurrekin errazagoa da».

Baina laguntza edozein motatakoa izan daitekeela ere aipatu zuen Marian Biurrarena koordinatzaileak, batzuetan aski arruntak. «Zahar Etxean musean aritzeko hiru lagun bakarrik zirela erran ziguten eta hor joaten da Elkarrizane ko boluntarioa gustora».

Zerbitzua ahalik eta profesionalena izateko asmoarekin, boluntarioei formakuntza, erantzukidetasun zibileko asegu-

ria, kilometraje gastuen ordainketa eta jarraipena eskaintzen zaie, hila-betero koordinazio bilera egiten baita.

Sentsibilizazio kanpainari dagokionez, TTIPI-TTAPA aldizkarian banatu den biorrikoarekin eta prentsaurrearekin batera, Lurraren Egunean eta Lesakako Ferietan informazio stand-a paratuko dute. Harremantarako eta informazio gehiagorako 948 635036 telefonora deituz edo ssb@lesaka.net helbidera idatziz egin daiteke.



**Asier
TELLETXEA TELLETXEA**
2005/10/29

Asier zu guretzat zenbat zinan aitortu ezinez aritu gara kontuan maitasunez bihotz minex. Urrinuko haize goxoan egin nahi zenuen amets baina bizitza behatzen artetik joan zaizu ihes. Gau askotan zenbait juerga goratzarre eta bromez lagun minen lagunmin ta mutil leiala zinenez gure bihotzak eskutan jartzen ditugu saminez emandako denegatik eskerrik asko bihotzez.

Hain zintugun aberatsa eta ona laguntzetan lan guztien maitalea guretzat fina benetan. Hemen sentitzen zaitugu nahiz eta ez zauden bertan antzerki gabeko obrak zenuen bi expainetan gogoratuko zaitugu gure une guztietan guretzat izar bat zara eta izar horren bueltan segiko dugu lanean oskarbi den egunetan beti egongo baitzara gu guztion bihotzetan.



**Rufina
ELIZALDE SANSIÑENA**
2010/10/12

Berriz itzuliko balitz iragan denbora amotza hemendik joan zatenekin elkarrekin bizi pozan zutabe agertzen zera oroitzapen bakoitzean behar zintugun seinale une asko, gehienetan hemen eman zenuena izan zazu zenuetan muxuak bana itzazu gure horko adiskidetan eskuminak eta mezuak oskarbi den egunetan beti egongo zera eta gu guztion bihotzetan.



**Carmen
ERASUN ANDIARENA**
Legasakoa, 2011ko urriaren 11n

Zure begien dizdira eta expainetako irria beti gurekin egonen dira amatxi maitagarria. Dena eman zenigulako adiorik ez, gero arte baizik.

ZURE FAMILIA

EZKONTZAK

Iñaki Peña Cabezon eta **Leticia Isuzkiza Iturria**, Irungoak, urriaren 8an Arantzán.

Urtzi Larzabal Longo eta **Oihana Arriola Capdequi**, Sunbillaokoak, urriaren 15ean Lesakan.

Iñigo Martínez Castanera eta **Jaiione Iribarren Saldias**, Irufekoa eta Doneztebekoa, irailaren 24an, Donezteben.

Mikel Salaberri Elizetxe eta **Amaia Altube Arrastio**, Doneztebekoa eta Nartartekoa, urriaren 1ean, Donezteben.

Julen Goia Etxebeste eta **Patricia Mariñelarena Apeztegia**, Berakoa eta Doneztebekoa, urriaren 8an Donezteben.

Bittor Mendiburu Altzuri eta **Idoia Erasun Pikabea**, Doneztebekoak, urriaren 15ean Donezteben.

Bittor Mendiburu Altzuri eta **Idoia Erasun Pikabea**, Doneztebekoak, urriaren 15ean Donezteben.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzeri atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonoa deitu behar da.



SORTZEAK

Eneko Almandoz Urbistondo, Igantzikoa, urriaren 2an.

Enaitz Ariztia Grillard, Urdazubikoa, irailaren 29an.

Garazi Imaz Ezkurra, Laiztakoa, urriaren 5ean.

Izaro Zelaieta Egia, Goizuetakoa, urriaren 8an.

Amane Obeso Sein, Igantzikoa, urriaren 7an.

Lena Mylène Torres, Sarakoa, urriaren 4 ean.

Lukas Ezkurra Arretxea, Doneztebekoa, irailaren 18an.

Enea Tolletxea Elizalde, Doneztebekoa, urriaren 13an.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzeri atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonoa deitu behar da.

HERIOTZAK

Francisco Loiarde Loiarde, Goizuetakoa, urriaren 16an, 85 urte.

Juan Pedro Irigolen Gainza, Oronoz-Mugairikoa, urriaren 5ean, 98 urte.

Beñat Etchart Verdu, Urdazubikoa, urriaren 6an, 12 urte.

Francisco Iriarte Irigolen, Arizkungoa, urriaren 7an, 80 urte.

Juan Zabaleta Zestau, Laiztakoa, urriaren 7an, 90 urte.

Migel Baleztena Alberro, Iturengoa, urriaren 8an, 81 urte.

Carmen Erasun Andiarrena, Legaskoa, urriaren 11n, 83 urte.

Benancio Azkarate Alberro, Gartzaingoa, urriaren 11n, 60 urte.

Vicente Goienetxe Bidart, Eibetekoa, urriaren 11n, 75 urte.

Julia Arregi Elorza, Doneztebekoa, urriaren 9an, 97 urte.

Dionisia Elorga Etxeberria, Urdazubikoa, urriaren 15ean, 87 urte.

Juan Bautista Juankorena Irungarai, Arraizkoko, urriaren 18an, 77 urte.

Francisco Urrutia Zozala, Azpikueetakoa, urriaren 18an, 83 urte.

Severiana Sarratea Mitxelorenena, Berakoa, urriaren 19an, 76 urte.

Jose Mari Santesteban Irisarri, Etxalarikoa, urriaren 20an, 57 urte.



**Beñat
ETCHART VERDU**

Lekaroz, 2011ko urriaren 8an

GOIAN BEGO



LEKAROZ BHI-KO
HEZKUNTZA KOMUNITATEA



**Beñat
ETCHART VERDU**

*Agur, Beñat, eta zuri arrot!
Zure izenaren letra guregan landuta dugu,
Zure hizkeraren letra guregan ereta dugu,
Zure adierazpenaren letra guregan jertu dugu!*

*Agur, Beñat, eta zuri arrot!
Auzo familaren atzetan elkartuko gara berri,
jertutako guregan dugu elkarteko, eta zuregan gara
adierazle eta lagun, berrot!*

URDAZUBI-ZUGARRAMURDIKO HERRI ESKOLAKO
GURASO, IKASLE ETA MAISU-MAISTRAK



**Beñat
ETCHART VERDU**

*Bile bakun bakarrik
hilegortze ikasirik murgortzenik...*

*Lanaren konpila irratirik
herria besakortzenik...
edo herriaren sormen
inlatzetan den irratietan
elkarren herri izanen dugi
Sori arrot, Beñat.*

URDAZUBI-ZUGARRAMURDI ETA
BAZTANGO HERRIETAKO ESKOLAK

AIZKORA → MAILA NAGUSIA

Euskal Herriko Aizkora Txapelketako finala jokatu da azaroaren 6an Elizondon

Hainbat txapel erabakiko dira datozen asteburuetan

TTIPI-TTAPA

Euskal Herri eta Nafarroa mailako arpana eta aizkola txapelketak erabakiko dira heldu diren asteburuetan. Azaroaren 6an, erraterako, **Euskal Herriko Maila Nagusiko Aizkora Txapelketako** finala jokatu da

Elizondon, 12:30etik aitzinera. Floren Nazabal (Etxarri Aranatz, Nafarroa; 42 urte), Juan Jose Lopez (Lezaun, Nafarroa; 42 urte); Iñaki Azurmendi (Arriaran, Gipuzkoa; 39 urte), Joxemari Olasagasti (Igeldo, Gipuzkoa; 52 urte), Aitzol Atutxa (Dima, Bizkaia; 23 urte) eta Luis Txapartegi (Zestoa, Gipuzkoa; 41 urte) ariko dira. Halere, Nazabal min hartua dagoenez, osatzen ez bada Joseba Otaegi zizur-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Donato Larretxea azaroaren 18an jokatu den Nafarroako Maila Nagusiko Txapelketan izanen da. Donezteben eginen da finala eta Jon Rekondo eta Ander Erasun ere han izanen dira.

kildarrak jokatu luke bere ordez.

Azaroaren 13an, **Nafarroako II. Mailako Arpana Txapelketa** jokatu da Aldatzen, 12:30ean hasita. Bortz bikote ariko dira nor baino nor: Oier Aizkorbe eta Eder Goldarazena (Berriozar), Julen Kañamares (Berriozar) eta Mikel Eugi (Beunza), **Xabier Gallardon** eta **Aitor Danborie-**

na (Etxalar), **Unai Igoa** eta **Imanol Endara** (Bera) eta Alberto Oteiza (Larrageta) eta Adrian Berruezco. Txapeldunak mailaz igoko dira.

Egun eta toki berean, **Aizkolari Gazteen I. San Martin Saria** jokatu da. **Mikel Zabaleta (Leitza)**, Iker Vicente (Otsagabia) eta **Joxean Etxeberria (Ziga)** ariko dira. Azaroaren 18an, **Nafa-**

roako Maila Nagusiko Aizkora Txapelketako finala jokatu da Donezteben. Bortz aizkolari parte hartuko dute: Juan Jose Lopez (Lezaun; 42 urte), **Jon Rekondo** (Leitza; 26 urte), **Donato Larretxea** (Arantza; 51 urte), Antonio Senosiain (Olague; 45 urte) eta **Ander Erasun** (Aurtitz, 21 urte) ariko dira.

PILOTA → GAZTEEN MAILAN

Nafarroako buruz buruko pilota txapelketa irabazi du Untxalo iturendarrak

Sagastibeltza leitzarra azpitxapeldun izan da kadeteetan

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Kirol Jolasetan, buruz buruko pilota txapelketen finalak jokatu ziren urriaren 12an Iruñeko Labrit pilotale-

kuan. Jubenil mailan, Txarutako Arkaitz Untxalo iturendarra izan zen txapeldun eta kadete mailan, azpitxapeldun izan zen Aurrerako Sagastibeltza.

Lehenbiziko finala kadete mailakoa izan zen eta Oberenako Espinallek 18-7 irabazi zion Aurrerako **Sagastibeltzari**. Oberenakoa 4-0 aitz-



ARGAZKIA: NAFARROAKO PILOTA FEDERAZIOA

Goitiko argazkian, Untxalo eta Espinal txapeldunak ageri dira, Iriarte Nafarroako Pilota Federazioko presidentearekin. Beheitikoan, Garaio eta Sagastibeltza azpitxapeldunak.

netik jarri zen, baina 4-3ra ere hurbildu zen leitzarra. Baina hortik 10era joan zen Espinal. 11-7ra ere hurbildu zen Aurrerakoa, baina hortxe gelditu zen.

Gazte mailako finalean, Txarutako Arkaitz **Untxalo** iturendarrak 18-

9 irabazi zion San Migueleko Garaiori. Bana eta bina berdindu ondotik, zazpi tanto segidan egin zituen Untxalok, lau sakez eta bertze bat zaballean. Iturendarrak gauzak ongi egin zituen, eta partida erabakia utzi zuen (18-9).

22 urtez beheitikoe-tan, Erreka taldean ari den Beñat **Oronoz** pilotari lesakarrak finalerako txartela eskuratu zuen urriaren 15ean, Oberenako Etxamendiri 18-15 irabazita. Urriaren 22an jokatzekoa zuen finala Lanaren kontra.

HERRI KIROLAK → LOKOTX BILTZE TXAPELKETA

Hamaikagarren aldiz Maika Ariztegi irabazi du Euskal Herriko txapela

36 segundoko aldea atera dio txapelduordeari

TTIPI-TTAPA | ITUREN

Urriaren 9an jokatu zen Asteasun (Gipuzkoa) Euskal Herriko Lokotx-biltze txapelketa eta bertze urte batez, Maika Ariztegi iturendarrarentzat izan zen txapela, aurtengoarekin hamaikagarrena.

Lau kirolarik neurtu zituzten indarrak: Maika Ariztegi (Ituren; 39 urte), Naiara Ferran (Gasteiz, Araba; 27 urte), Itxaso Hernandez (Legutio, Araba; 33 urte) eta Jo-



ARGAZKIA: LEGARRA

Ezkerretik hasita hirugarrena da Maika Ariztegi, txapela buruan eta trofeoa eskuetan duela.

sune Gorostidi (Txarاما, Leaburu, Gipuzkoa; 44 urte). Iturengoak 36 segundoko aldea atera

zion Gorostidi txapelduordeari eta zazpi segundogatik ez zuen hoberu iazko marka.

2000. urtean lortu zuen Ariztegi bere lehenbiziko txapela, eta getoztik, parte hartu duen

guztietan bereganatu du txapela, 11 urtetan, alegia. 2004koan ez zuen parte hartu eta orduan, Naiara Ferranek irabazi zuen. Hortaz, 2004koa salbu, 2000tik gaur arteko txapelketa guztiak irabazi ditu. Gisa berean, txapelketako marka ere berak du, joan den urtean lortutakoa (07:17).

ARIZTEGIREN MARKARIK ONENAK

MARKA	URTEA
07:17	2010
07:21	2008
07:23	2009
07:24	2011
07:28	2007

HERRI KIROLAK → II. MAILAKO AIZKORA TXAPELKETA

Heldu den sasoian Maila Nagusian ariko da Jon Rekondo leitzarra

Bigarren izan da Euskal Herriko II. Mailako Txapelketan

TTIPI-TTAPA

Bigarren Mailako Euskal Herriko Aizkora Txapelketan bigarren postua eskuratu ondotik, heldu den denboraldian Maila Nagusian ariko da Jon Rekondo leitzarra (26 urte).

Urriaren 9an jokatu zen bigarren mailako txapelketa Asteasun (Gipuzkoa) eta Unai Otañok (Ibarra, Gipuzkoa; 34 urte) bigarren urtez jantzi zuen Euskal Herriko txapela (aitzinekoa 2006an jantzi zuen). Gainera, azken bederatziru teotako denborarik onena egin zuen (18:27). Leitzarra izan zen bigarren sailkatua, minutu bat eta 23 segundora. Aipatzekoa da, azken



ARGAZKIA: LEGARRA

Ezkerretik hasita Rekondo leitzarra eta Erasun aurtiztarra irribarrez, sari banaketaren ondotik.

zortzi urteetako txapelduenen denbora ere hoberu zuela leitzarrek. Bi lehenbiziko sailkatuak Maila Nagusian ariko dira heldu den sasoian.

Hirugarren posturako lehia ere aski borrokatua izan zen. Izan ere lanerdietan, Ugaitz Mugerzak (Mutriku, Gipuz-

koa; 24 urte) 18 segundoko aldea kendu zion **Ander Erasuni** (Aurtitz; 21 urte), baina hortik aitzinera aurtiztarra hoberu moldatu zen eta hirugarren postua bereganatu zuen. **Arkaitz Olano** (Leitza; 21 urte) eta Aratz Mugerza (Mutriku; 23 urte) bosgarren

eta seigarren postuetan ibili ziren hasieratik.

SAILKAPENA	
U. OTAÑO	18:27
J. REKONDO	19:50
A. ERASUN	22:39
U. MUGERZA	23:21
A. OLANO	23:52
A. MUGERZA	25:11

urriak 28-azaroak 10

Informazioa bidaltzeko: info@ttipi.net edo 948 63 54 58**Feriak**

ELIZONDO | 2011.10.28-29

Aziendak ortzirealean eta Atsoferie larunbatean

Udazkeneko feria egitaraua abiatzeko ortzirealean Elizondo-koak egingen dira. Goizeko ekitaldiak arratsaldeko pilota partidekin borobilduko dira.

Zinema

LEITZA | 2011.10.28-30

Zinema denboraldi berri bat hasiko da

Eskualdean lanean segitzen duen zinema bakarrak denboraldi berri bati ekinen dio. Ostiraletan 22:30ean eta igandetan 19:30ean izanen dira emanaldiak.

Jardunaldiak

BERTIZ | 2011.10.29-11.28

Ehizari buruzko XVIII. jardunaldi gastronomikoak

Garaian garaikoa jatea kome- ni da eta horregatik, hemezortzigarren aldiz ehizari buruzko gastronomia jardunaldiak prest dira, eskualdeko 13 jatetxetan.

Ama-aita-zaintzaileei zuzendua eta 1-12 hi- labete dituzten umetxoei. Asteazkene- ro 10:00etatik 11:30era atal desberdinetan ma- saia nola eman ikasiko da.

Jardunaldiak

BERTIZ

Ehizari buruzko XVIII. gastronomia jardunaldiak

Urriaren 29tik azaroa- ren 28ra egingen dira eskualdeko 13 jatetxe- tan, Bertizko Partzuer- goak antolatuta.

Antzerkiak

BERA

XIII. Kafe Antzerki Zikloaren hasiera

Azaroaren 4ean Txire- ne taldearen *Sarean zintzilikatua* antzeslana ikusgai Katakua Ostatu- an, 22:00etan.

Lehiaketak

BAZTAN-BIDASOA

Boluntarioria eta elkartasunaz bideoak

Azaroaren 11n akituko da Bidelagun elkarteak *Bertzeen larruan jarri* izenburupean antolatu- tako bideo lehiaketa.

LESAKA

Beti Gazte elkartearen argazki lehiaketa

Urriaren 31n bukatzen da Beti Gazteren ar- gazki lehiaketara lanak aurkezteko epea.

MALERREKA

Bertso-paper eta ipuin lehiaketak

Azaroaren 11 arte aurkeztzen ahal dira- *Euskaraz bizi nahi dut* bertso-paper eta ipuin lehiaketarako lanak.

Ipuin kontalariak

BERA

Haurrentzako ipuinak**Erakusketak**

ELIZONDO

Gema Labaien Elementuak

Urriaren 7tik azaroa- ren 3ra Germa Labaie- nen *Elementuak* eskul- tura erakusketa Arizku- nenean.

Larresorre-Baztan elkarlana

Azaroaren 5etik 18ra Larresorre-Baztan el- karlanaren pintura era- kusketa Arizkunenean, astelehentik ortziralera.

Bestak

AURTITZ

San Martin bestak

Azaroaren 10etik 13ra. Xehetasunak 25. orrian.

Feriak

ELIZONDO

Udazkeneko feriak

Urriaren 28 eta 29an. Xehetasunak 552. alean.

Kontzertuak

DONEZTEBE

Ernadi rock besta

Azaroaren 5ean kon- tzertuak eskainiko di- tuzte Santa Luzia pla- zan Saguxar, Soñado-

res natos, Barniz por la nariz, Marianitoz blai eta Des-kontrol talde- ek, 22:00etan hasita.

BERA

Txeikiako korala Tolosako lehiaketatik

Urriaren 31n kontzer- tuak eskainiko du Txe- kiak The Gentlemen Singers abesbatzak 19:30ean Kultur Etxe- an.

ELIZONDO

Folk Ametsetan

Azaroaren 6an Olga y

los Ministriles taldearen emanaldia 19:30ean Arizkunenean.

Ospakizunak

ARANTZA

Baserritarren Eguna Kultur Egunen barne

Azaroaren 1ean ospa- tuko da, Arantzako Kultur Egunen barrene- an. Xehetasunak 20. orrian.

GOIZUETA

Jubilatuaren Eguna

Urriaren 30ean ospa- tuko da herriko jubila-

tuen eguna. Xehetasu- nak 30. orrian.

Ikastaroak

LESAKA

Edoskitze naturalari buruzko tailerra

Urriaren 27an edoski- tze eta amatasunari buruzko informazioa eta horren inguruko la- guntza. Hilaren azken ortzegunetan 17:30ean Koskontako Bidea, 7 - 2. solairuan. Informa- zioa: 646 373936.

Haur masaia tailerra

Azaroaren 2tik 30era

PROPOSAMENA

ARANTZA

Baratzeko produktuak Baserritarren Egunean

Azaroaren 1eko Baser- ritarren Egunean ingur- uan udazkeneko Kul- tur Egunak antolatu di- tuzte aurten ere, egita- rau zabalarekin. Santu Guzien egunean, ba- serrietako produktuak, tresnak, eskulanak, aziendak... plazaratu- ko dira eta dastatzeko eta erosteko aukera ere izanen dute berta- ratzen direnek. Ekaitza elkarteak ostatua para- tuko du.



Urriaren 28an Lur Kor-
ta haurrentzako ipuin
kontalariak *Otsoz otso*
4-7 urte bitartekoentzat
ipuinak kontatuko ditu
liburutegian 18:00etan.

Zinema

LEITZA

Denboraldi hasiera

Urriaren 28an eta
30ean *El hombre de al*
lado filma ikusgai.

Azaroaren 4ean eta
6an *Valor de ley* filma
ikusgai. Ostiraletan
22:30ean eta igande-
tan 19:30ean.

BERA

Alzheimerrari buruzko dokumentala

Azaroaren 5ean *Cui-*
dadores alzheimerrari
buruzko dokumentala
ikusgai izanen da Kul-
tur Etxean 19:30ean.

Mendi ateraldiak

BERA

Larun Ttiki mendi taldearen irteera

Urriaren 30ean lamo-
teneatik Lizaietarar joa-
nen dira. Kotxez
Otsandaraino (09:30).

ZUGARRAMURDI

Atxuria mendi taldearen irteera

Urriaren 30ean IEzka-
ba mendirat ateraldia
antolatu du Atxuria
mendi taldeak.

BAZTAN

Baztango Mendigoizaleen irteera

Azaroaren 6an Arra-
ioz-Auzkue-Oronoz-
Gontxeko borda-
Ezponda-Urkizketa-
Larrazu-Arraioz irteera
prestatu dute Baztan-
go Mendigoizaleek.

Gertaera guztiak
ikusteko, begiratu:
www.ttipi.net
(agenda)

ENTRETENIMENDURAKO GAIAK

Liburua



Auzolanaren kultura


JASONE MITXELORENA

Txalaparta, 2011

Auzolana antzinako garaietatik iritsi zaigun lan-
sistema da, komunitate bateko kideen arteko
elkarlanean oinarrituta dagoena. Lan-sistema bai-
no, herriak ekiteko, antolatze eta bere burua era-
tzeko duen modua da. Azterketa historikoaren eta
hausnarketaren bidez, liburu honek gure herrian
auzolana zer izan den eta zer den azaldu nahi du.
Euskal herri-izaeraren ondare gisa, duen balioa ai-
tortu nahi dio, erlikia historikotzat hartu beharrean,
orainaren lanabesa eta etorkizunaren giltza dela
frogatuz.

Jasone Mitxelorena Ozkaritz kazetari etxalartarrak
bere lehen liburua argitaratu eman du Txalpartaren
bidez, 494 orrialdeko saiakera historiko mardula,
Auzolanaren kultura: Iraganaren ondarea, oraina-
ren lanabesa, etorkizunaren giltza izenburupean.

Musika



Sputnik 11

SPUTNIK 11

Bonberenea Ekintzak
2011

Sputnik 11: Tolosako Bonberenea inguruko orbi-
tan dabilzan lau taldek (Switch, Indekitxen,
Glaukoma Sound System eta Dolce Tangana) mar-
txan jarritako proiektua. Grabaketa munduan es-
perientziarik gabeko lau talde tolosar hauen indar-
rak batzearen emaitza da 8 abestiz osatuta dago-
en bilduma hau. Ska, reggae, heavy metal eta rock
doinuz beteta dagoen diska honetan, partaide ba-
koitzak bi abesti izanen ditu bere proposamen
musikala plazaratzeko, bi jaurtiketa bere satelitea
espazio zabalera ateratzeko, Bonberenea eta Otsa-
bi auzo elkartearen laguntzarekin izan da posible
Sputnik 11 orbitan jartzea. Lehenengo Sputnik so-
bietarra bigarren mundu gerra ondoko lasterketa
espazialean erreferente bat bihurtu zen moduan,
Sputnik 11 musika arloko erreferente bilakatzea da
helburua, bai lau taldeei bultzada emateko, baita
etorkizunean etor daitezkeenei aukera bat eskaini
ahal izateko ere.

Internet



Marrazki bizidunak
euskaraz jausteko

MARRAZKIAK.99K.ORG

Marrazki bizidunak eta haurrentzako luzeme-
traia sorta ikusgarria eskaintzen ditu webgu-
neak, eta doan gainera. Luzemetraien atalean 205
filme daude eskuragarri une honetan, bertzeak ber-
tze, *Asterix*, *Harry Potter*, *Banpiro Txikia*, *Ice Age*,
Doraemon. Marrazki bizidunek tartean aukera handi-
agoa da, kontuan izanik telesail bakoitzeko ma-
kina bat atal deskarga daitezkeela. Izenburuen ar-
tean *Dragoi Bola*, *Etxekaltetxoak*, *Hattori Ninja*, *Hi-*
rukiak, *Pokemon*... 106 telesail guzira. Deskarga-
tzeko bidea erraza da. Hasteko, aukeratu nahi du-
zun pelikula edo telesailko atala. Sistemak Mega-
upload zerbitzarira eramaten du erabiltzailea eta
bertan deskarga egiteko bi aukera eskaintzen di-
ra: Premium (ordaindu beharrekoa) eta normala (do-
an). Sakatu eta sistemak ordenagailura deskarga-
tuko du artxiboa. Beste aukera bat artxiboa Mega-
upload webgunean zuzenean ikustea da.

Nire aukera



Amaia ENETERREAGA
Xorroxin Irratiko esataria

«Bi egun libre baditut, norabait bidaiatzeko probaxten dut»

Lesakako esatariak Larratsaldeak eta as-
teburuak libre izaten di-
tu eta denbora horretan,
«kirola egitea gustatzen zait, dantza taldean segitzen dut eta futbol taldean aritzen nintzen Beti Gazten eta orain Hondarribian entrentatzen hasi gara 7 lagun». Asteburuetan lagunekin elkartzeko gustatzen zaio eta «Donostira joatea antzerkiren bat ikustera, zinema... Donostia hiri bezala ere aunitz gustatzen zait, baina egunen bat libre badut aunitz mugitzen naiz: azkena, Almeria eta Granadara joan nintzen irail hondarrian». Izan ere bidaiatzea aunitz gustatzen zaio eta oporrak horretarako aprobetxatzen ditu: «Azaroan Berlinera joan nahi nuke eta nire ametsa Argentina edo Kubara joatea da». Hain gaztea izateko, de-
xente bidaiatutakoa da Amaia: «Egon naiz Mexikon, Suedian, Austrian, Eslobakian, Italian 6 hilabetez...». Gehien Italia gustatu zaio, «ez bakarrik politagatik, ongi ezagutzeko aukera ere izan dudalako».

ETXEBIZITZAK

salgai

ERATSUN. 3 borda salgai, lur eremuarekin. ☎943 217817.

LESAKA. Etxebizitza bifamiliarra salgai, prezio onean. ☎609 477277.

**ANZABAL**
INMOBILIARIA**BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA eta IPARRALDEAN**

- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

IPARRALDE eta BIDASOA alderdian

- Eskaintzagatik baserriak, bordak eta lurak behar ditugu.

ZUGARRAMURDI

- Baserria salgai 80.000 metro²ko lur eremuarekin.
- Etxe adosatua bere lurarekin salgai.

Tel. 948 580 804
Faxa. 948 581459
anzabal@anzabal.com

DONEZTEBE. Ogiberri ganean pisua salgai. 2 logela, egongela, sukalea, 2 bainugela, trastelekua eta 36m²ko terraza. Dena hegoaldean. ☎656 770373.

IGANTZI. 70 m²ko pisu berria salgai 180.000 euroa edo errentan emateko 500 eurotan. 2 logela, bainugela, kalefakzioa, garajea marra eta trasteroarekin. Ikuspegi ederrak eta oso argitsua. ☎670 218613.

DONEZTEBE. Pisua salgai. Sukalea, komuna, 2 logela, egongela handia eta despentsa. 15 m²ko trastelekua. ☎630 160353.

ETXALAR. Zaharberri-

MERKATU TTIKIA

948 63 54 58

info@ttipi.net edo www.ttipi.net

SAIL HONETAN IRAGARKIA JARTZEKO 8€ ORDAINDU BEHAR DA ARGAZKIAREKIN JARRI NAHI IZANEZ GERO 10€

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta TELEBISTA eta INTERNETen hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako 3008 0080 56 0703304329 kontuan

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik

tzeko den borda salgai. Lur eremuarekin. ☎661 121540.

DONEZTEBE. Pisua salgai, 2 logelakoa eta trastelekuarekin. Amezitia zeharbidean. 114.000 eurotan. Eta 3 logelako bertze pisua ere salgai, 132.000 eurotan. Bero-gailuarekin. Sartzeko prest. ☎649 472658.

DONEZTEBE. Parrokia karrigan 130 m²ko pisu eraberritua salgai. 3 logela, egongela, sukalea, 2 bainugela eta balkoi-terrazza. ☎619 374998.

ETXEBIZITZAK

errentan emateko

LESAKA. Apartamentua errentan emateko, plaza ondoan. Berria eta altzariekin. Sartzeko prest. 450 euro. ☎656 793855.

LESAKA. Albistur 18 behean, pisua errentan

emateko. 3 logela, 2 bainugela eta egongela-jantokia. 85 m² ditu. Terrazarekin. Guztira 135 m² inguru. ☎666 545069.

ETXEBIZITZAK

errentan hartzeko

DONEZTEBE EDO INGURUETAN neska euskaldunak pisua errentan hartuko luke. ☎617 834361.

ETXALAR. Etxea edo pisua errentan hartuko genuke. ☎687 222320.

GARAJEAK/LOKALAK

salgai

LESAKA. Eltzeta karriko 20. zenbakian, 80 m²ko lokal komertziala salgai. ☎617 936622.

GARAJEAK/LOKALAK

errentan emateko

LESAKA. Plaza erdian ga-

raje itxia errentan emateko. ☎675 714360.

LURRAK/ORUBEAK

salgai

ELIZONDO. Lur eremua salgai, laua. 5.276 m² familia bakarreko etxebizitza eraikitzeko baime-narekin. ☎609 708797.

SUNBILLA. 440m²ko lur eremu urbanizatua salgai, 220 m²ko familia bakarreko etxebizitza eraikitzeko baimenarekin. Prezio onean. ☎616 289492.

LANA

eskariak

LEITZA ETAINGURUAN Neska euskaldun batek etxeak garbitu edo adinekoak zainduko lituzke. ☎695 716894.

Emakume heldu bat adinekoak zaintzen edo bertze edozein lanetan

ariko litzateke. ☎678 397046.

DONEZTEBE INGU-RUAN 43 urteko emakume batek edozein lan eginen luke: garbiketak, haurrak edo adinekoak zaindu... Autoarekin. ☎608 679316.

MOTORRA

salerosketak

Volkswagen Golf 2.0 GTI salgai. Matrikula: NA 8954 AK. 1.500 euro. ☎948 599267/ 639 901647.



Opel Astra Cosmos salgai, 2005ekoa, 1.9 CD-Ti, 120 zaldikoa, 5 ate, beltza. 90.000 kilometro. ☎679 270432 (deitu 13:00etatik 17:00etara).

Rieju Tango 50cc motorra salgai. Oso gutxi ibilia dago eta ongi zainduta. 2010ekoa da eta 800 km ditu. 1.500 euro. ☎647 117491.

**BASERRIA**DATU ITURRIA: NAFARROAKO GOBERNUA
(urriaren 7tik 14ra bitarteko prezioak)**ZERRIKIA**

Zerrikumea
(19 kilo): 32,00 € (=)

Zerri gizena
1,208 € kiloan. (-0,015)

Zerramak:
0,430€ Kg/bizirik. (+0,010)

BEHIKIA

Aretze gizenak:
Idixkoak: €/kg. Kanal

Extra 4,25 (+0,03)

1.koa 3,95 (+0,03)

2.koa 3,71 (+0,03)

Urruxak: €/kg. Kanal

Extra 4,33 (+0,03)

1.koa 4,05 (+0,03)

2.koa 3,93 (+0,03)

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

Aretze tikiak
(15 egun ingurukoak):

Aretze mestizoak:
urruxak 120,00 (=)

idixkoak 180,00 (=)

Aretze nabarrak:
urruxak 110,00 (=)

idixkoak 120,00 (=)

Zaldikoak: €/k

Sortuberriak: 2,88/2,98

Zaldi-behorrak: 1,78/1,98

Bildotsak: €/k

6-8 kilokoak: 8,40/9,10

8-10 kilokoak: 7,00/7,30

MOTORRA
tailerrak

MENDAUR MOTOR
948 450333 • DONEZTEBE

SUZUKI
(gasolina eta diesela)
MITSUBISHI
(luze eta laburrak)
TURISMOAK

ANIMALIAK
oparitzeko

10 hilabeteko **zakur arra** oparitzeko, yorkshire eta pomerania arrazak gurutzatutakoa. Etxebizitza aldatu gara eta ezin dugu kontu. ☎ 627 086266.



SANTESTEBAN Tailerrak

KANGOO AXI 1.4 95CV 2007 urtekoa - 49.000km	MEGANE II DYNAMIQUE 1.6 DCI 105CV 2010 urtekoa - 18.000km	SCENIC II EMOTION 1.6 DCI 115 CV 2008 urtekoa - 30.000km
ETA GAINERA:		
Kangoo Xtra 1.5 DCI 95 CV		
Kangoo 1.5 DCI 70 CV		
Megane II Business 1.9 DCI 130 CV		
Megane II Business 1.9 DCI 130 CV		
Citroën C4 1.6 115 CV - W18		
Citroën C4 1.6 DCI 115 CV - W18		

DONEZTEBEN RENAULT-en KOTXE SA BERRITAN SEKULARO ESKANTZAK

ITUREN. Bi katakume beltz oparitzeko. Ama ehiztari bikaina. ☎ 948 451787.

ANIMALIAK
salgai

Lau hilabeteko grifoi arrazako **zakurkumeak** salgai. ☎ 667 874991.

DENETARIK
salerosketak

SUNBILLA. Su egurra salgai, lotean edo xehetua. ☎ 659 867287 / 699 461394.

Berogailuarentzako mila litroko **gasolio depositu homologatua** salgai. ☎ 948 464183.

IRUN. Taxi lizentzia salgai. ☎ 619 345729.



BERTIZARANAKO
Udala

Higiezinaren enkantea Narbarten

- 1.- Deitzailea: Bertizaranako udala
- 2.- Kontratuaren xedea: 87,71 m² erabilgarri dituen etxebizitzaren enkantea, Narbartenko Jose M^a Lakoizketa plazako 4-3.C helbidean. Etxebizitzaren jabea udala da. Katastroaren erreferentzia: Bertizaranako udal mugapeko 2. poligonoa, 16. lur-zatia, 1. azpierrezua, 11. hiri-unitatea.
- 3.- Esleipen modua:
Tramitazio arrunta, prozedura irekia, enkante publikoa egiten da, ahozko postuaren bidez eta sesteoa izanen du.
- 4.- Lizitazio tipoa: laurogeita hamar mila euro (91.000 euro).
- 5.- Proposamenak aurkeztea: 40 egun natural betetzen diren eguna; 15:00etan, iragarkia Nafarroako Kontratazioaren Atarian argitaratu eta biharamunetik hasita.
- 6.- Ahozko postuaren eskaintzak: Udaleko ekitaldi aretoan egiten dira, azaroaren 21 goizeko 12:00etan, ekitaldi publikoan.
- 7.- Behin-behineko bermea: Lizitatuzaileek kreditatu behar dute eratu dutela 1.820 €-ko behin-behineko bermea udalbatzaren kutxan, udalaren eskura, klausula administratiboen pleguan ezarritako moduan.

Bertizaranan, 2011ko irailaren 29an
ALKATEA

DENETARIK
bertzelakoak

ZUBIETA. English conversation. 35 urte Oxforden (Ingalaterra) bititu den

emakume euskalduna ingelesezko solasaldiak egiteko prest, giro atsegina eta lasai batean. ☎ 948 920020/ 663 723710.

TTIPI-TTAPAK ZURE LAGUNTZA BEHAR DU

gure bezeroak
enberrusketarako
proiektuak
can
proiektu
zenbakia
15.996

Zure laguntza eskertzeko
DOKUMENTU-POLTSA
bat izanen duzu opari



Boligrafo, identifikazio txartela eta mugikorrerako konpartimentuak



ttiipi-ttapa

Eska ezazu TTIPI-TTAPAren proiektuak aseratu izanen frogagarria Nafarroako Kutsarri zure bulegoan eta ekar ezazu TTIPI-TTAPAra abienduaren 30a baino lehen.


urtebetetzeak

Argazki soila: 4€; bikoitza: 8€

Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,34€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko txekoa; 4) www.ttipi.net bitartez



ALAIN ETXEPARE AIESTARAN lesakarrak urtea bete du urriaren 24an. Zorionak familia guztiaren partetik.



Sunbillako **PATTERE** eta **JONEK** azaroaren 4an urteak beteko dituzte. Auniz urtez familiaren partetik eta berexiki Markel eta Haizearen partetik. Ongi pasa!



Zorionak Aresoko **IÑASO ONSALORI** azaroaren 3an urteak beteko dituelako. Ahalik eta hobekien pasa eguna! Ea lagunei afari goxoa prestatzen diguzun!




BEÑAT ALTOLAGIRRE GARCIA beratarrak urtea bete du urriaren 16an. Musu handi bana masail pottolo horietan. Jateko zaudel!




Etxalarko **ENERITZ ARANBURU GALARREGI** gure etxeko printzesak 2 urte egin ditu urriaren 23an. Zorionak ataxi eta amatxiren partetik.



Doneztebeko **MATTIN RETEGI AZPIROZEK** 5 urte beteko ditu azaroaren 2an. Zorionak pottoko eta muxu haundi bat zure anaia Ander, aita, ama eta familia guztiaren partetik. Prestatu merienda goxoa.




Haunditzen haunditzen, hasi da haunditzen erdi donostiar eta erdi iturendarra den **ARROSENEN LAIENE**. Urriaren 30ean 4 urte beteko ditu. Zorionak eta muxu haundi bat arrosenetar eta xubildetar guztien partetik. Berexiki Nahia, Ixiar eta Peio tikiaren partetik.



XANET APEZETXEA ETXEBERRIA goizuetarrak 3 urte beteko ditu urriaren 31n. Zorionak bihurri! Besakarda eta muxu bat! Aiora, atta eta ama.




Sunbillako **KLEMENTE IRIARTE IBARRAK** urteak beteko ditu azaroaren 6an. Auniz urtez familia guztiaren partetik eta berexiki Maider, Iraide eta Garaineren partetik. Ongi pasa eguna atatto. Mila muxu.



Oletako (Alza) **ITSASO LAZARRAGA CEREZOK** urteak bete ditu urriaren 20an. Auniz urtez eta ongi pasa, Naikari eta Aitor izeba-osaben partetik.




Iturengo **MAXUX** eta **JOXE MARIK** urteak beteko dituzte urriaren 28an eta azaroaren 15ean. Ongi pasatu zuen egunak familia guztien partetik eta nola ez Garaine eta Iraide sagutxoaren partetik. Muxuak eta heldu den urtean berriz.



Oletako (Alza) **ITSASO LAZARRAGA CEREZOK** urteak bete ditu urriaren 20an. Auniz urtez Lesakako aitaxi eta amatxiren partetik. Zer moduz ikastolan?



Goizuetako **ELAIA NARBARTE MAKAZAGA** gure neska maitagarriak 2 urte beteko ditu azaroaren 14an. Zorionak eta muxu asko familiaren partetik.



ONINTZA ZAPIAIN ABUIN beratarrek 11 urte bete ditu urriaren 23an. Auniz urtez artista! Muxu handia familiaren partetik.

Kulturkari

NAIARRA EDITORIALA HARAN EDITORIALA HIRIBARRA EDITORIALA

ABUINEN 12, 13, 14, 15, 16, 17, 18, 19, 20, 21, 22, 23, 24, 25, 26, 27, 28, 29, 30, 31

AZAROA

1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30
31					

Handik 14tik 16 bitarteko egunak 4000 eta 4500 bitarteko prezioak dituzte. (1000 eta 1500 bitarteko prezioak dituzte.)

100 eguneko: 70 euro
250 eguneko: 85 euro
500 eguneko: 110 euro
1000 eguneko: 150 euro

Prezioak 1927 berri dira!

1000 eta 1500 bitarteko prezioak dituzte. (1000 eta 1500 bitarteko prezioak dituzte.)

1000 eta 1500 bitarteko prezioak dituzte. (1000 eta 1500 bitarteko prezioak dituzte.)



IREKI

L E I H O A K

- Aluminio R.P.T / PVC
- Itxidurak
- Kontraleihoak
- Barandak
- Berandak
- Pertsianak
- Toldoak

T-F: 948 630 962
M: 626 313 162

www.irekileihoak.com

Pol. Ind. Zalain, 8
BERA

irekileihoak@irekileihoak.com



BERAKO XIII. KAFE-ANTZERKI ZIKLOA 2011

AZAROAK 4 | ORTZIRALA

22:00etan, Kataku ostatuan

TXIRENE TALDEA

Sarean zintzilikatua

AZAROAK 11 | ORTZIRALA

22:00etan, Errekalde ostatuan

XAGU TALDEA

Agur, Manhattan!

AZAROAK 20 | IGANDEA

19:00etan, Auzoa ostatuan

OSORON

Buah Txaball

Antolatzailea



Leguntzailerak



URRIAK
29

LURDJOTAK

01:00 - 02:00 DOHAINIK
02:00etatik aintzinerara 9€ eta kontsumizio bat dohainik 03:30ak arte

AZARDAK
5

LURDJOTAK

01:00 - 02:00 DOHAINIK
02:00etatik aintzinerara 9€ eta kontsumizio bat dohainik 03:30ak arte

AZARDAK
12

SUTA GAR + ERRUGABE

00:00 - 12€ Aurretik - 15€ Bertan
Salmenta puntuak: Antxitonea eta Txokoto (Elizondo) - El Infiernito Guitar Shop (Iruña) - Atxaspi (Lesaka)

AZARDAK
19

ESNE BELTZA

00:00 - 10€
Salmenta puntuak: Antxitonea eta Txokoto (Elizondo) - El Infiernito Guitar Shop (Iruña) - Atxaspi (Lesaka)

AZARDAK
26

LURDJOTAK

01:00 - 02:00 DOHAINIK
02:00etatik aintzinerara 9€ eta kontsumizio bat dohainik 03:30ak arte



garagardotegia

Ostiral, larunbata eta jaiegumeko bezperetan irekia
ENTZERIBAK TEL. 940511003